

uk

155. zenbakia / 2009ko apirilaren 17a



BERTSO-SAIOA

Andoni Egaña
Fredri Paia
Jon Maia
Uxue Alberdi
Gai-jartzailea:
Aitzol de Castro

Apirilak 25
20:00etan
6 €

Kultur Leioako Auditoriumean

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte

HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarmiraga, Maitane Nerekan, Zuberoa Iturburu, Ainhoa Lores

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Zioztza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizara Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkartearen Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Getxo Antzokiaren erakusketa
7. LEHEN ETA ORAIN. Sopolako eliza.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Asier Mondragon, Algorta.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopolana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Diseinuzko etxeak eskualdean.
28. ARGAZKIA. Getxoko Kirol Portua.
30. BERBETAN. Xabier Aierdi.
34. FOTOGRAFIA. Korrika Uribe Kostan, 2009.


KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia.
43. MUSIKA. Nerviosah. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Liburu Eguna, apirilak 23. Liburuen erreseinak.
45. KIROLAK. Leioa Waterpolo taldea.
46. ELKARRIZKETA. Eneko Barrutia, Mendebalde Elkarte.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Croissanterie-Brioiserie, Getxo.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. "Gecho" trainerua, 1970. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Ane Gabarain .

Azala: Asier Mentxaka



30 Xabier Aierdi

Berbetan

Ikuspegi Immigrazio Behatokiko zuzendariak, etorkinen egoerari buruz luze berba egin digu.



11 Asier Mondragon



54 Ane Gabarain



Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

BILBO BERRI
Bizkerre, s/n - ALCORGA. Tel. 94 430 68 81



Sarrerak txarteldegian

Informazioa
94 607 25 70



Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

EITB

ETAren prentsa bulegoa ei gara. El Pais, ABC, Correo, etabar irakurtzen duen Cadizko batek hori pentsatuko zuen. Ez dakigu bereizten ontasun eta gaiztakeriaren artean. "Hedabide publikoetan ETAr sustengua amaitu behar da". Antonio Basagoitik esan du. EITBn ETAren izkribu liburua lerroz lerro jarraitzen dugu. Hori irakurri dut ABCn. Ez da berria, baina onartu behar dut nekatuta nagoela. Haserretzeko indarrak ez. Nekatuta nire lanbidearekin, bai, baina batez ere, kazetaritzaren barruan etika klaseak eman nahi dizkigutenekin. Zein izango ote da irakaslea? Sasiadazle Peruano ezjakin horrek? El Paiseko iritzi arloko nagusiak? El Correoko artikulistaren batek? Hau idazten dudun bitartean, atzera begiradaxo bat botatzen dut. Nire lanpostuan nago. Eta konturatzen naiz, egunero bezala, abenduan ETAren bonba batek eragindako kalteak konpontzeko lanak aurrera doazela. Astiro-astiro, egoitzako zauri erraldoia ixten doaz. Ez, tamalez, asko eta askoren laguntzaz. Barriro ere, EITBko langileak, ni behizat, bakarrik sentitzen gara. Alde batetik, ETAren mehatxuak (inork ez dezala pentsa hau barria denik); bestetik 'izen handiko' ustezko kazetariaren irainak. Urteak eta urteak dira horrela. Aldaketarik? Ea egia den.

gu geu**Ongi etorri lagun!**

155. alea amaitzeaz geundela, Korrika heldu zen Uribe Kostara. 16. Korrikak Ongi Etorri esan digu gura izan dugun guztioi; ongi etorri, euskaraz bizi gura dugunon herri honetara. Badago ongi etorria gustura hartu ez duenik (Nafarroako gobernuak, adibidez), baina hori beraien arazoa da. Beraiek galduko dute urte bi barru kolore eta adin guztietako lagunak batzen dituen korrikaldi hunkigarrian parte hartzeko aukera; baita, euskara bezalako hizkuntza aberatsaren jabe izatea ere. Zorigaitzokoak, hizkuntzak baztertu eta mespretxaaten dituzten horiek; ezjakintasunak altxor handiak galtzera eroango ditu.

Guk aldiz, bat egin genuen Uribe Kostako Korrikagaz. Gure argazkilaria kamara eskuan ibili zen lau ordu luzez, korrikaldiaren momenturik politenak harrapatuz. Fotografia atalean aurkituko dituzu lagun, senide eta auzokideen argazkiak.

Baina, Korrikari tarte handia eman badiogu ere, beste hainbat gai eta pertsonaia ekarri ditugu ale honetara. Xabier Aierdik, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendariak, migrazio mugimenduei buruz eta horiek duten eraginari buruz berba egin digu "Berbetan" atalean. Aldizkaria eskuetan hartu, sofan lasai eseri eta ekin irakurtzeari!

UK-ko lantaldea**Iritzia**

Hiru eleberrri kaleratu ditu dagoeneko Esther Zorrozuak. Oraingoan, istorioak alde batera utzi, eta krisia hartu du berbagai iritzi artikulu honetan.

Aberatsen sindromea

Gaur egungo krisia dela eta, mota guztietako albisteak eta zurrumurruak sortu dira gure inguruan. Tartean, badutenak zer ikusirik krisi berak aberatsengan duen eraginari buruz. Egia da, oro har, dirudunak direla gehien galdu dutenak

«Edozeinen buruan galdera xume bat sortzen da berehala: zertarako behar dute hainbeste diru?»

publikazioak, urtero argitaratzen du gorengo ondasunen zerrenda eta bertan agertzen dira, hurrenez hurren zehatz, nortzuk diren munduko aberatsenak. Zerrenda horren barruan aldatetaren bat sufritzeak, bi eragin izaten ditu: alde batetik, galdu-irabaziak argi uzten dituela edozeinen aurrean; bigarren, sailkapen horretan leku bat edo gehiago galtzeak

azkenengo hiletan (diru gehien zutelako izango da, beharbada). Forbes aldizkariak, entzunez behintzat danok ezagutzen dugun

jasanezinezko apalkuntza dakarrela.

Guk, pertsona arruntok, hain urruti ikusten ditugunez, ez gara gai horrelako arazoak ulertzeko, baina datuek ez dute azalpen berezirik behar. Argi esanda, lehenengo hamar milioi aniztunen dirutza 254.000 dolar milioi inguruko da, hogeit hamar milioi txiroen barne produktu gordina baino gehiago. Zentzugabekeria hutsa!

Edozeinen buruan galdera xume bat sortzen da berehala: zertarako behar dute hainbeste diru? Nahiz eta ahalegin guztiak egin, ezin izango dute irabazi beraien bizitza osoan, eta heriotzak harrapatuko ditu beraien ondasunei inolako onura atera baino lehen; bai negozio arriskutsuetan sartu eta zorte txarra izateagatik, bai beraien senideek xahutzeagatik. Badago esaera zahar bat, gutxi gora-behera dioena: "aita jornalari, seme aberatsa, iloba eskeko".

Ez litzateke zentzudunagoa izango zati txiki bat gorde, eman dezagun mila milioi, patxadaz bizitzeko, eta beste guztia askatu? Ez lukete horrela hainbat estatusun eta nahigabe baztertuko? Hauen boteretsuen ibilbidea ikusita, ematen du aberatsa izatea egunero arrisku esparruan dantzatzea dela. Azalpen bat bakarrik iruditzen zait: mozkorrak ardoa bere zainetan behar duen bezala, ematen du aberatsak ere adrenalina hori nabaritu behar duela, betiere gora eta behera bere barnean bizirik dagoela sentitzeko.

Munduak baditu hainbat eta hainbat bitxi harrigarri, diru barik lortu eta asko gozaten direnak. Ikasi beharko lukete, beraien osasunerako, gauza txiki eta doakoak estimatzen. Nork daki aldaketa horrek bide berri bat zabal dezakeen krisi honetatik ateratzeko?

Esther Zorroza
(Idazlea)

[irudia]

2008KO MARTXOA, ALGORTAKO MERKATUA

Etorrizuneko antzokia / Algortako Merkaturik ikusgai dago etorkizuneko Getxo Antzokiaren maketa. Etorrizuneko arrazoak bigatik: hemendik urte batzuetara zabalduko dituelako atak eta diseinu moderno-barrizalea izango ei duelako. Getxoko Udaletik emandako informazioaren arabera, "bata bestearen ondoan izango diren blokeak osatuak" dira. Hall-etik Auditoriora helduko da (700 lagunentzako lekua izango du); bigarren bolumentean Musika Eskola izango da. Ikusi gura duena, Algortako merkatura hurrera dadila. O / Argazkia: **Asier Mentxaka**

No sabemos euskera... ¿Cómo podemos ayudar a nuestras hijas e hijos?

La charla se realizará en castellano
Hitzaldia gaztelaniaz izango da

Hitzaldia

Eguna: 2009/05/01
Dia: 01/05/2009

Ordua:
Hora: 19:00

Lekua: Kultur Leloa Auditorium
Lugar:

Hizlariak

Julio Ibarra:
Desde la experiencia que da ser padre el periodista nos contará lo que a su familia le ha aportado la educación bilingüe. "Los hijos e hijas de los padres que no saben euskera pueden crecer en euskera sin ninguna dificultad. Además puedes aprender mucho de ellos. ¡Deja que te enseñen!"

Iñaki Eizmendi:
Educador social con una amplia experiencia fomentando el bilingüismo. Nos dará algunas claves para ayudar a nuestro hijos e hijas en el aprendizaje del euskera.

Habrá servicio de guardería
Haurtzaindegia egongo da.

Gaiak

- ¿Qué ventajas tendrán mis hijas e hijos si llegan a ser bilingües?
- No hablo muy bien euskera. ¿Debo hablarlo con mis hijos e hijas?
- No hablamos euskera, ¿cómo ayudarles a ser bilingües?
- Mi hijo estudia solo en euskera. ¿Tendrá dificultades para aprender castellano en el futuro?
- Nuestra hija mezcla el euskera y el castellano. ¿Qué debo hacer?



[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / SOPELANAKO ELIZA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > aztarna bi



2009ko martxoa, Getxo

Testua: **Itxaso Paia**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Bazen behin bikote bat
Malen eta Aritz
goizero bidegorri
honetara irriz
etorri ohi zirenak
esperantza handiz
elkar gurutzatzean
bankuan eseriz
elkarri eman zioten
musu lehen aldiz.

2

Eguzkia joan zen,
denbora ere bai,
berriz euren helmugak
zeuzkaten biek zai,
Joan behar zuten, baina
ezin joan lasai...
- Itzuliko zarela
ez daukat argi, ai...
- Neuk ere zuregandik
ez dut urrundu nahi.

3

- Itzalak huts ditzagun
maitasun seinale
eta korrika segi
biok kalez kale...
Nahiz bankua ez izan
ideia haren zale,
egun, han daude oraindik
itzalen bi ale
oraindik izan gabe
elkarren maitale.

* Doinua: Agur sagar beltzaran

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal
iezaguzu atal honetan agertzea nahi
zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko
duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

arteak > Bostekoa 09 erakusketa ibiltaria Leioan egongo da apirillean



Bostekoa 09 erakusketan ikusi daitekeen lanetako bat

Bostekoa 09 Arte Garaikidearen Erakusketak ibilbide luzeko hiru artista nabarmen aurkezten ditu bere hamabigarren edizioan: Dora Salazar eskultorea (Altsasu, 1963), Begoña Zubero argazkilaria (Bilbo, 1962) eta Jorge Garcia margolaria (Sao Paulo, 1957). Sortzaile oso ezberdinak diren arren, giza figuraren inguruan egiten dute lan hirurek. Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez sortu zen Bostekoa 09, Euskal Herriko artisten lana ezagutzera emateko. Martxoan hasi zen aurtengo edizioa Getxon, eta maiatzaren 30ean emango diote amaiera Basaurin. Apirilaren 21etik maiatzaren 10era bitartean, Kultur Leioan egongo dira ikusgai hiru euskal artisten lanak. Astelehenetik barikura goizeko 10etatik arrastiko 8etara ikusi ahal izango dira. Asteburuetan aldiz, goizeko 11etatik ordu 2etara eta arrastiko 5etatik 8etara egongo da zabalik. Sarrera doan da. ○

bilbo > 83ko uholdeei buruzko testigantzak batu dituzte DVD batean



www.bilbao.net web gunean egongo da eskuragarri DVDA

Batek baino gehiagok gogoan izango ditu oraindino 1983ko uholdeak. Uribe Kostara heldu ziren uraren kalteak, nahiz eta, gure inguruan, Bilbok eroan zuen zatirik txarra. Txosnak Ibaizabal itsasadarraren ur indartsuakaz batera joan ziren, eta bertan behera utzi behar izan zituzten jaiak. Joan den urtean, 25 urte bete ziren Mari Jaia uretan ito zenetik. Data hori gogoratzeko, "Lokatzetik suspertu zen hiria" DVDA egin du Bilboko Udalak. Bertan, urteurrena oroitzeko Bilbon ospatu dituzten ekimen guztiak jasotzen dira: mahai inguruak, kontzertuak... Horrez gain, Zabalguneko Merkatuan ikusgai izan zen multimedia erakusketa, bilbotarrek egindako ekarpenak jaso dituzte. DVDA www.bilbao.net Bilboko Udaleko web gunetik deskarga daiteke. ○

saiaz getaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



..harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

bertsolaritza > Uribe Kostako gazteak garaile BBK txapelketan



Uribe Kostako bertsolari gazte talde bat

Lehenik eta behin zorionak eskualdeko bertsolari gazteei! Martxoaren 27an Bilboko Kafe Antzokian jokatu zen finalean garaile irten ziren gureak. Emozioz beteriko saioa izan zen. Aurtengoagaz, Ipar Uribek (Uribe Kosta) bosgarrenez irabazi du eta, beraz, Lea Artibairen marka bardindu du, honek ere bost aldiz irabazi duelako Bertsolari Gazteen BBK Sariketa. XVII. edizio honetan, talde bakoitzak adin maila batean irabazi badu ere, puntu guztiak batu eta gero, Ipar Uribe izan da garaile, 425 puntugaz. 18 urtera artekoen taldean, Inazio Vidal, Peio Arondo eta Imanol Uri bertsolariak lehiatu ziren; 19 eta 24 urte bitartean aldiz, Arrate Illaro, Peru Vidal eta Jone Uri. Azken horrek, finalistik gazteenaren saria irabazi zuen 2006ko edizioan eta Imanol Uriak 2007koan. Ikus daitekenez, bertsolaritzan gogor jotzen ari diren gazteak ditugu eskualdean! Ea horrela jarraitzen duten eta Euskal Herriko txapelketan ikusten ditugun noizbait! ○

sukaldean > Gastronomía Zientzien Fakultatea 2011. urterako



Karlos Argiñanok eta beste euskal sukaldariak parte hartuko dute proiektuan

Mondragon Unibertsitateak eta euskal sukaldariak Basque Culinary Center Fundazioa sortu dute. Donostian kokatuko da zentroa eta 2011. urtean ipiniko da martxan. Zientzia Gastronomikoen Fakultatea eta Zientzia Gastronomikoen Ikerketa eta Berrikuntza Zentroa batuko ditu. Juan Mari Arzak, Martin Berasategi, Pedro Subijana, Karlos Argiñano, Andoni Luis Aduriz, Hilario Arbelaitz eta Eneko Atxa sukaldariak eta Mondragon Unibertsitateko Iosu Zabalak osatzen dute Fundazioaren patronatua. Sukaldaritzako Arteetako unibertsitate-gradua eskainiko du, eta horregaz batera graduondoko beste lau titulu, sukaldaritzako profesionalei eta beste sektore batzuetakoei zuzendutakoak. Elikatzea lehen mailako beharrezana baino askoz gehiago da euskaldunontzat. ○



[erreturua]

"Dena ondo ateratzen den momentua da onena, aurretik oso urduri egoten naiz"

Asier Mondragon > The Piper's Irish Pub tabernako langilea

Aurrera eta atzera ikusten dugu gehienetan, eskuetan hiru, lau edo bost plater dituela. Menua azkar batean botatzen digu eta ez du aurpegi txarrik jartzen errepikatzeke eskatzen diogunean. 2001ean hasi zen Asier Mondragon santutxuarra The Piper's Irish Pub Algortako tabernan beharrez; orain dela bost urte, bazkide egin zen. Eguneko menua eta garagardo gozoak eskaintzeaz gain, herritarren topaleku eta hainbat kultur ekimenen etxe da *The Piper's*: "Kulturagaz lotutako ekimenak egin behar direla uste dugu, eta taberna leku ona da horretarako. Harremanak egiteko lekua dira tabernak; kontzertu, antzerki edo beste edozein espektakulu baten ondoan bada, askoz hobeto". Baina, ez pentsa guztia antolatzea eta kontrolpean izatea erraza denik: "Dena ondo ateratzen den momentua da onena; aurretik oso urduri egoten naiz". Gustura dago beharrez, nahiz eta familiagaz egoteko denbora gutxi uzten dion: "Goizeko Setan hasi, gosariak eman, jendeagaz eta hornitzaileakaz egon, bankura joan behar bada bankura joan, bazkariak prestatu, bazkariak eman eta zer edo zer gehiago egin behar bada, egin". Giroari dagokionez, ez dago asmatzerik zergatik egiten duen gora edo behera: "Momentuak daude, askotan ez dakigu zergatik gaur jende asko dagoen eta bihar gutxi. Giroarena ez da zientzia zehatza". Beharrez utzi dugu Asier Mondragon, bezeroak zain ditu eta. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan Reprografia
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •



World Cafe ekimenaren ondorioak

Iritzi trukaketan datzan metodoaren bidez pasa den urte amaieran egindako hainbat herritarren eta etorkinen arteko bilkuratik ondorioztatutako emaitzak jakinarazi dituzte

Iazko abenduaren 20an Getxoko Udaleko Immigrazio eta Kulturartekotasuneko Unitateak eta udalerriko hainbat immigrazioaren inguruko elkartek World Cafe deritzon ekimena antolatu zuten. Bertara 60 bat herritar hurreratu ziren (batzuek norbere izenean parte hartu zuten eta beste batzuek elkarteren baten ordezkari legez), eta ekimenaren helburuari jarraituz, adierazitako iritziak jaso zituzten.



2008ko abenduaren 20an egin zen World Cafearen irudia. Informazio gehiago: www.getxo.net

World Cafe deritzon ekimena, gutxi gorabehera, planteatzen zaizkien gai batzuen inguruan batutakoek (herritarrek, gizarteak zelanbait) duten iritzia batzean datza. Hala, Getxoko ekimenean, iritziak trukatzeko sistema partehartzailearen joko-arauen arabera, luzatu zizkieten hiru galderaren inguruan euren aburuak eman zituzten 60 bat lagunek. Aburuok jaso, aztertu eta zelanbait bateratu ostean, oraintsu eman dute udal arduradunek horietatik atera dituzten ondorioak.

Partaideei luzatu zizkieten hiru galderak hauek izan ziren: lehenengoa, *Pertsonen migratzeko/ lekualdatzeko duten eskubideari buruz zein da zure iritzia?*; bigarrena, *Zer da zuretzat immigrazioa? Gatazka ala elkarbizitzarako aukera?*; eta azkena, *Gure gizartean dagoen kultur eta erlijio aniztasunagaz eduki behar dugun konpromisoak nolakoak izan behar du?*

Hiru galderon inguruan bideratutako 60 lagun aburuak jaso eta udal arduradunek atera dituzten ondorioak, besteak

beste, hurrengoak dira, lehenengo galderaren ingurukoak: immigrazioa fenomeno naturala da, etenbakoa eta historiaren berezkoa; mugak pertsonen egindakoak dira eta aberastasun naturalak era desorekatuan daude banatuta; migratzeko eskubidearen aldeko iritzia ahobatez nagusitu

«Hiru galderen gainean 60 bat lagun aburuetatik ateratako ondorioak»

zen eta eskubide horrek herrialde hartzaileen arabera murriz daitezkeela.

Bigarrenari dagokionez: etorkinen eta bertokoen arteko kulturartekotasuna eta elkarrenganako errespetua beharrezkoak dira elkarbizitzarako; beste kultura batzuetako lagunak harremanetan sartzak alde batetik, beldura, mesfidantza, kontrol politikak eta indarkeria eragiten ditu eta bestetik, tolerantziara, kulturarte-

kotasunera, mestizajera eta hezkuntzara zabaltzeko aukera; emigratzen diren pertsonak, etekina ez sortzekotan, ez dira onartuak izaten eta aldi berean egokitzeko prozesuagatik egoera gogorra bizi behar dute...

Eta azkenaren gainean: hezkuntzari dagokionez, eskola integratzeko faktorea da, hizkuntza ofizialak sustatzea komenigarria da; Politikan eta gizarte eskubideetan, (gestio burokratikoak, etxebizitza, lana, hezkuntza etab.) berdintasuna beharrezkoa da; etorkinen elkarteak osatzea eta hedabideen bidez bultzatzea garrantzitsua da, erlijioaren aniztasuna onartzea ere; udalei, dei egiten zaie etorkinen elkarteak harremanetan ipintzeko, besteak beste, kulturarteko ezagutza sustatzeko, zerbitzu publikoen informazioa eskaintzeko, bergizarteratzeko ikastaroak antolatzeko eta topagunak kudeatzeko.○

Arrigunagako landa eta

Bosgarrena arteko ibiltokia konpontzeko 1,2 milioi



Lanak maiatzean hasiko dira, eta lau hilabete amaitzea espero dute

Getxoko Udalak, Toki Inbertsiorako Espainiako Estatuko Funtsek emandako dirulaguntzagaz, 1.200.000 euro inguru bideratuko du Arrigunagako landa eta Bosgarrena kalearen arteko ibiltokia zaharbarritzeko beharretara. Tarte barriak 757 metroan luzatuko du Galeako pasealekua, hondartza eta itsasargia lotuz, eta guztira kilometro bi eta erditik gorako ibilbidea egongo da pasean doazenentzat. Horrez gainera, Getxoko alkate Imanol Landak aurreratu duenez, *“jar-duera honek Bizkaiko Zubia Galeagaz lotzea ahalbidetuko du, herritarrek estimu handia dioten kostaldeko ibiltokiaren bitartez. Gure asmo nagusia Getxo, Leioako mugatik hasi eta Sopelara, lotzen duen 11 kilometroko itsas ibiltoki eder hori osoz konpondu eta txukuntzea da”*.

Pasealekua oinezkoentzako izango da eta guztiz zolatuko dute. Azaldu dutenez, “ibiltokiak 4 metroko zabalera izango du errota eta Bosgarrena kalearen bitartean izan ezik, bitarte horretan egun dagoen 7,4 metro zabalera espaloia luzatuko dutelako. Aixerrota kaleko galtzadarrizko zola ere barriztuko dute, baita luzatu ere Arrigunagako hondartzaraino”.

Egitasmoa gauzatzeko lanak maiatzean hasiko dituzte eta espero dute 4 hilabete amaituko dituztela.

Horrez gainera, pasealeku barriaren parean bidegorria egingo dute Aixerrota kaleraino; hala, inguruetan dagoen bidegorria luzatuko da. Bidegorriak 3 metroko zabalera edukiko du Galea kalean, Bosgarrenatik Aixerrota kaleko elkarguneraino doan tartean. ○

UME SAHARARRAK ETXEAN HARTZEKO IZEN-EMATEKO EPEA ZABALIK

XIII. Oporrak Bakean ekimenaren baitan, udan ume saharar bat etxean hartzeko prest dauden familiek dagoeneko izena eman dezakete ekimenaz arduratzen den ATFALen (Sahararen aldeko Getxoko elkarte) bitartez. Aljeriako Tindoufeko saharar errefuxiatuen kanpamentuetatik datoz uztaile eta abuztua igarotzera gurera 7 eta 12 urte bitarteko haurrak, epe labur batean behintzat bizi duten egoera latza (bide batez, salatu beharrekoa) ahaztu asmoz, eta osasuna zelanbait berreskuratzeko helburuagaz. Saharar ume bat etxean hartzeko baldintza bakarra udalerrian errolatuta egotea da. Bestalde, Udalak hainbat ekimenetarako dirulaguntza ematen du urtero, eta aurten ekimena aurrera ateratzen den 13. urtea izango da.

Harremanetarako: atfalgetxo@gmail.com
Tf. 658751359 edo 94 466 00 17

SARERA DOAN SARTZEKO WI-FI GUNEA 7 ERAIKIN PUBLIKOTAN

Maiatzaren erdialderako ipiniko dituzte martxan sarera doan konektatzeko wi-fi guneak. Guneok hurrengo zazpi udal eraikinetan egongo dira: San Nikolas liburutegia, Gobela Kiroldegian ipiniko duten etorkizuneko liburutegia, Fudurako Kiroldegiko ikasketa gunea, Villamonteko liburutegia, Villamonteko bulegoetako ekintza aretoak, Andres Isasi Musika Eskolako liburutegia, eta Getxoko Udaleko batzar aretoa. Erromoko eta Areetako liburutegietan momentuz ez dute wi-fi bidezko konexiorik eskainiko, eraikin bi horiek zaharbarritzeko egitasmoa aurreikusita dagoelako. Egitasmora Tokiko Inbertsiorako Espainia Estatuko Fondoak emandako 40.000 euro bideratuko ditu Udalak. Zerbitzua doakoa izango da, baina lehenengo aldiz erabili aurretik eskaera eta pasahitza eskatu behar dira, eta jakinarazi dutenez “edukiak direla eta, web gune zehatz batzuetan” ez dute sartzen utziko.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe 13 / Tf. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA



Beatriz Celaya > kazetari eta biografia idazlea

“Kasinoaren 130 urteko historia Algortako historiagaz lotzea interesgarriago iruditu zait”



Celaya Bilboko bere estudioan

Liburu Egunaren harira Getxon antolatuko diren ekitaldien artean aurkeztuko du (hilak 21, 19:00; Kasinoa) Beatriz Celayak *La historia de Algorta a través del Casino Algorteano (1877-2007)* liburua. Kazetari eta Biografías Personales enpresako biografia idazle bilbotarrak iragarri duenez, liburuaren beste argitalpen bat ere egon liteke: “*honetarako jendea mesfidati, iheskor ibili da, agian euskaldun izaeragatik, eta lana ikusi ostean, berba egiteagatik ez dela ezer txarrik gertatzen antzematean, ziurrenik kontu gehiago kontatzera animatuko direla*”.

—Zelan sortu zen liburua osatzeko ideia?

—Kasinoko aurreko presidentek helarazi zidan, 2005ean. Bera konturatu zen eraikinararen garrantziaz, Algortako estandarte legez ere ikusten zuen. Historia hori kontatzeko norbaiten bila hasi eta, 2007an jakin zuen, nire osaba zelako, biografiak idazteko enpresa bat neukala. Ideia interesgarria iruditu zitzaidan, Udalaren babes lortu ostean, iaz hasi nintzen lanean.

—Zelan egituratu, antolatu duzu liburua?

—Pentsatu nuen Kasinoaren historia bakarrik batzuek, agian ez lukeela hainbeste lako interesik; hobe esanda, Algortako historia-

gaz lotzen banuen ziurrenik interes handiagoa isiotuko lukeela. Historia 1877tik hasien da, kasino bat eraikitzeke asmoagaz 5 lagun batu zirenean. Kasinoaren historia garatzen doan heinean, Algortakoak ere aurrera egiten du sozial, politikoa eta ekonomikoki; biak batera doaz.

—Badago “urrezko garaien” ingurukorik?

—Garai bakoitzak badu bere alde ederra, argitsuak; momentu gorenetan, jaiak antolatzen zituen, bazkide piloa zeuzkan, egiazki batzeko lekua izatea lortu zueneko garaiak... Ostera, badira txarragoak ere, oharkabean pasatu direnak, bazkide kopu-

rua itzel gutxitu... Gerra zibilekoak legez, denontzat ere sasoi ilunak. Baina, 130 urteotan hainbat garai “argitsu” bizi izan ditu, pasadizo-bitxikeria piloa batu ditut.

—Zeintzuk izan dira zure iturriak?

—Kasinokoek 1877tik hasita osteko akteetan oinarritu naiz, baina gaitza izan da, darabiltzen hizkuntza moduagatik, testuingurua antzeman dezakezu, baina horiekaz historia idaztea gaitza da, are gehiago nobela kutsua eman gura diogunean. Nobelatua dela diodanean, ez da fikziozko zentzuan, baina, bai, zenbait baimen literario baliatu ditut, berbarako: 1877an Kasinoa sortzeko

«XX. mende hasierako Algortako langileen soldata, ogibideak etab. jaso ditut»

batzar hura, orain Kasinoa dagoen orube ohian kokatu dut. Hala egin dut uste dudalako erakundeen-eta biografiak askotan “aspergarrizat” jotzen direla, eta irakurterrazagoa izan dadin. Beste zailtasun bat bibliografia izan da, Algortan berezitua ez dagoelako lan askorik. Baina, zorrea aldeko, 15 bat lagunek, asko Kasinoko bazkide izandakoak, pasadizo asko kontatu zizkidaten, liburua entretenigarriagoa eginez. Antzinako argazkiak bere badira liburuan.

—Eta Algortako historiari...

—Sorreratik jasotzen dut, Getxoko beste guneez ere badihardut. XIX. amaiera eta XX. mende hasierako pasarte langileen soldata, ogibidea, herriko jarduera ekonomikoa jasotzen dut, zelanbaiteko azterketa soziologikoa. Garai haietan eta gaur Kasinoaren garrantzia ez da berdina, orduan ez zegoen batzeko leku asko, eta Kasinoa lako guneez bateko partaide izateak izen ona edo ematen zuen; orain aisialdirako eta batzeko lekuak aldatu dira, makina bat daude, Kasinoa oharkabeagoan pasatzen da. ○

Ibilbide toponimikoak

Udalerriko toponimia ezagutzeko **herritar guztientzako 9 ibilbide** aukeran



Urkixobaso, ibilbideetako bat hortik pasatzen da

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Bizarra Lepoan euskara elkarteak bigarren urtez antolatu dituzte Ibilbide toponimikoak. Getxoko ikastetxei, EGIZUko lagunei, berbalagunei, kultura elkartei, euskaltegiari eta oro har, herritarrei begirako ibilaldiak dira, udalerriko leku-izenak (toponimoak) ezagutzeko helburu dutenak.

Arduradunek azaldu dutenez, “Getxoko Udalak 2005ean Getxoko leku-izenak deituriko materiala aurkeztu eta banatu zuen: Mikel Gorrotxategik eta Sofia Susok egindako liburua, Getxoko mapa-planoa eta CDa (liburua eta mapa

agertzen dira, baita 8 ibilbide, 250 argazki eta jolasak ere). Material hori ezagutzera eman gura da herritarren artean. Horretarako, material didaktikoa presatatu eta 9 toponimia-ibilbide eskainiko zaizkie (2005ean argitaratutako CDko 8ak eta Bizarra Lepoanek sortutako euskararen ibilbidea)”. Hala, *Getxoko leku-izenak* toponimia liburuan oinarrituko dira ibilbideok eta gidariak azalpenak euskaraz emango dizkie taldeei. Amaitzeko aipatu, ibilbideotan parte hartzea doakoa dela. ○

Ibilbideak ezagutzeko:
www.box.net/shared/p4rqu247s7
Informazio gehiago: 688 635 350

IZEN-EMATEAK EUSKARAZ EPAITEGIKO ERREGISTRO ZIBILEAN

Getxoko Epaitegiako Euskara Batzordeak jakinarazi duenez, Erregistro liburuaren sistema martxan ipini denetik, “*inskripzioak euskaraz ere egin daitezke Getxoko Epaitegiako Erregistro Zibilean*”. Hau da, jaiotza, heriotza, ezkontza eta tutoretzen izen-ematea euskaraz egin ahalko da; ostera, hori “ezin da egin bake epaitegietan”. Azaldu dutenez izen-ematea euskaraz egiten bada ere, “*ziurtagiriak bai euskaraz, bai gaztelaniaz eskuratzeko aukera dago*”. Batzordekoen ahotan, “*euskararen normalizaziorako bidean beste urrats garrantzitsua dela iruditzen zaigu eta eskubide hori erabiltzera gonbidatu gura ditugu herritarrek*”.

XXIV. GETXO MODA HILAREN 20TIK 23RA

Getxo Empresarial y Comercial elkarteak antolatzen duen moda erakustaldia hazi egingo da aurten, egun bira luzatuko dute ekimena eta gaiari loturiko beste ekitaldi batzuk iragarri dituzte (adib. erakusketak). Antolatzaileek ekimena “Bizkaiko moda Astea” bihurtzeko helburua dute, eta hazkundera irudikatu guran San Joseren jauregian izango da ekimena. XXIV. ekitaldia “herrikoia” eta “herriko ekonomia guneen aldekoa” izango dela adierazi dute. Hilaren 22an Diseinatzaile Gazteen VI. lehiaketa egingo da, ostean, Jota + Ge, Marta Teran, Mercedes de Miguel, Ian Mosh, Alicia Rueda eta Ivonne Lopezek udagoienerako proposamenak erakutsiko dituzte. Hilaren 23a herriko hainbat denden txanda izango da.

TERESA BEITIAREN KOADROAK ALGORTAN

Algortako Satistegi tabernan egongo dira ikusgai maiatazen 6ra arte Teresa Beitiaren dozenatik gora koadro. Apirilaren 23an artistak *performance* bat eskainiko du koadroen historia azaltzeko. Koadro batzuek Ugarit (Egipto; “lapurren” herri desagertua...) islatzen dute Beitiaren esanetan, beste batzuek krisia etab.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • Tf. 94 460 71 62 / Telletxe 15 • Tf. 94 460 42 44 • ALGORTA

Luis Ángel Gomez Alonso "Kankel" > Sakoneta polikiroldegiko zuzendaria eta medikua

“Denok saiatu beharko ginategi tratu txarrak jasan dituen emakume baten aurrean gehiago inplikatzin”

Duela egun batzuk, 30 gizonetik gora batu ziren Leioako Mendibilen, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako hausnarketa sakona egiteko. Gizon horien artean Sakoneta polikiroldegiko zuzendaria, Luis Angel Gomez izan zen. Kankel, medikua ere bada, eta urteak daroaz zuzendari lanetan Leioako kiroldegian.



Luis Angel Gomez Alonso

—Zein izan da Topaketa honen helburua?
—Genero bortizkeriaren arazoaren aurrean gizonak egin ditzaketen hausnarketak komunean jartzea. Ekitaldi hau Leioako Udalak antolatu zuen eta bertan 40 gizon baino gehiagok parte hartu genuen.

—Zer landu da bertan ?

—Arestian esan dudana bezala, indarkeriari buruzko hainbat galdera komunean jarri genituen; idarkeriari buruzko definizioa, jatorriak eta kausak... saiatu gara ekintzak proposatzin gaitz hau behingoz desagertarazteko.

—Badakizu datorren hiletarako gai honen inguruko beste ekintzaren bat prestatuta dagoen?

—Ez dakit, baina ondo legokeela iruditzen zait. Agian, beste gizonetako kolektibo gehiagok egin beharko litzateke, horrela pertsona gehiago jabetuko liriteke, eta gure

bortizkeriaren gaitzespena zabalduko genuke.

—Egungo gizaratean emakume eta gizonen arteko harremanak aldatu dira?

—Nire ustez bata eta bestearen papera aldatu da. Gizonok emakumeak gizaratean duen paper barrira ohitu behar gara, gauza txikietatik hasita, etxekolanen banaketatik, adibidez. Gizarte honek emakumeak, gizonen modura, erabaki dezala behar du, eta ez du ikaratu behar zuzendaritza lanetan, adibidez, emakume bat ikusteak.

—Zer iruditzen zaizu hedabideen jarrera hilketa baten aurrean?

—Albiste hauek ondo iristen ote diren zalantza dut. Elkartasuna, gaitzespena eta maitasuna da transmititu beharko litzateke; hurrengo egunean, edonork ahaztuko duen egunkariko lehen orrialdeko albiste nagusia baino.

Denok saiatu beharko ginategi tratu txarrak jasan dituen emakume baten aurrean gehiago inplikatzin. ○

Leioako Gazte Eguna

“Herriko saltsan, gazteok martxan” lelopean dator apirilaren 25ean ospatuko den gazte eguna.



Joan den urteko Gazte Eguneako bazkaria

“Herriko saltsan, gazteok martxan” lelopean dator aurtengo Leioako Gazte Eguna. Txakurzulo Gazte Asanbladak antolatutako egun hau apirilaren 25ean ospatuko da Leioako bazter ezberdinetan.

Aurtengoa zazpigarren urtea da, eta hasieran Kraska konpartsak antolatzen bazuen ere, 2007an, sortu barria zen Gazte Asanbladaren eskuetan geratu zen.

Egitarauari dagokionez, hasierako ekitaldia 11:00etan izango da, eta honegaz batera, azokari emango zaio hasiera. Ordu berean, Futbito txapelketa eta sokatirako finalak ere jokatuko dira. Bestalde, rokdromoa, sagardoa eta pintxoak goiz guztian zehar dastatzeko aukera izango da.

12:00etan tiragoma lehiaketa ospatu-

ko da eta eguerdi aldera, 14:30ean, hain zuzen ere, bazkaria izango da; bazkalosterrako jolasak eta antzerkia prestatu dituzte asanbladakoek.

Arratsaldeko 17:30ean poteoa orkestra musika talde ibiltaria eta bertsolarikaz ondo pasatzeko aukera izango da. 20:00etan, ordea, ekitaldia izango da Leioako Plaza Gorrian; ondoren, kontzertuak Rumb and bugies eta Txapel-punk taldeen eskutik. Eguna era ezin hobean amaitzeko 24:00etan erromeriagaz dantzatzeko aukera parebakoa izango da.

Bazkariko txartelei dagokienez, gura duenak, alde zuzenetik edo egunean bertan erosi ahal izango ditu sei eurotan. ○

BIZIKLETEROAK KONTZIENTZIATZEKO KANPAINA LEIOAN

Ziklomotore eta bizikleta erabiltzaileek jasaten dituzten istripu kopurua, eta harrapaketa kopurua gutxitzeko asmoagaz, Ertzaintza eta Udaltzaingoa zirkulazioa zaintzen ibiliko dira. Kanpaina honetan txirindulen zirkulazioa lehenengo aldiz hartuko da kontuan, eta oinarrizko neurriak betetzea, kaskoaren erabilera, dokumentazioaren kontrola eta zaratak, alegia, aztertuko dira. Kontzientziazio ekimen hau ez soilik Leioan egingo, Getxo, Basauri, Bilbo, Gasteiz eta Donostian ere aurrera eroango da kanpaina. Kontrol hauen areagotzeak erabiltzaileek egiten dituzten akatsak eta arau-urraketen segurtasun maila handitzea dute helburu.

LEIOAKO AUDITORIUMAK ANTZEKIZUN BI AURKEZTUKO DITU

Leioako Auditorium-ak antzezkizun bi aurkeztuko ditu datorren egunetan. Lehenengoak, apirilaren 24an izango den “Animales Artificiales” obrak, barruan dugun animalien eta bizi ditugun mundu artifizialen artean gertatzen denaren enpatiarik eta orekari buruz berba egiten du. Ana Vallesen zuzendaritzapean datorren emanaldi honen interpreteak Helen Bertels, Jose Campanari edo Monica Garcia dira, besteak beste. Hitzordua 20:30ean izango da eta sarrerek 12 euro balio du. Bigarren antzezkizuna A priori taldearen eskutik datorren “Casi Romeo y Julieta” dugu. Honetan, Toston eta Batuta eszenatoki berezi baten bila aritu ostean, topatu dute dagoeneko. Lekua gorria da, perfektua, zoragarria eta show bat egiteko denetarik dauka. Bertan, Romeo eta Julietaren istorioa antzeztu beharko da. Marta Torres da obra honen zuzendaria eta Gerardo Quintana, Oti Manzano eta Eduardo Ferre arituko dira oholta gainean. Hitzordua apirilaren 26an izango da, goizeko 12:00etan eta sarrerek 4 euro balio du.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: hirstab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Itxaso Garcia > Polos Opuestos taldeko ahotsa eta gitarra

“Los despistados taldearen aurretik aritzea izan dugun esperientziarik politena izan da”

Erandioko Musika Eskolako Polos Opuestos eta IG (Izenik gabe) taldeek Bergarako Musika Modernoko 1. Leihaketan parte hartuko dute datorren apirilaren 26an. Guk Polos Opuestos-eko ahotsa eta gitarra jotzaile Itxaso Garciaz berba egiteko aukera izan dugu. Talde honek lehen urratsak aspaldi eman zituen, nahiz eta oraindino, diskorik kaleratu ez duten. Joan den urtean ETBko Sutanblai saioan parte hartu zuten eta horrez gain Erandioko jaietan Los despistados taldearen aurretik aritu ziren. Orain barriz, lehen maketa prestatzen dabilta.



Polos Opuestos taldea

—Zein izan da 1. Musika Moderno Leihaketan parte hartzeko prozesua?

—Guk konposatutako abesti bi prestatu ditugu. “Orain zer” euskaraz eta “Sin ti” gaztelaz eta orain dena prestatzen eta saiatzen gabiltza.

—Zer suposatzen du honelako ekintza batean parte hartzeak?

—Beste aukera bat musika egiteko eta baita ondo pasatzeko ere. Gainera ia zortea dugun eta zer edo zer irabazteko aukera dugun. Esperientzia polita dela iruditzen zait.

—Azaldu egiguzu nolakoa den zuen

musika estiloa? Eta zer jotzen duzuen?

—Pop, klasikoa eta baita punk-a ere. Instrumentuei dagokienez, nik ahotsa eta gitarra jotzen ditut, Iris Chaparrok gitarra bakarlaria, Maitane Reche ahotsa eta baxua, Mikel Perezek bateria eta Xabier Casanek Teklatuak.

—Zuen lehenengo maketa prestatzen zabilzate, zer edo zer aurreratu dezakezue?

—Guk sortutako bost abesti dira, baina hala ere, oraindino ez dugu ezer grabatu. Orain

dela gutxi estudio bat aurkitu genuen, eta orain grabatzeko eguna baieztatu behar digute. Normalean ez da oso erraza taldeko guztiok elkartzeko eguna aurkitzea.

—Badaukazue etorkizunerako proiekturik esku artean?

—Ez legoke batera txarto Bilbon kontzertu bat ematea, baina oraindik urrun ikusten dugu. Joan den urtean, Astrabuduko jaietan jo genuen “Los despistados” taldearen aurretik, eta guretzat izan dugun esperientzia eta kontzerturik onena izan da. ○

Gune Beltzen Mapa

“Emakumeentzako Hiri Debekatuaren Mapa” sortzeko deialdia Erandioko emakumeei



Herrian bizi diren emakumeen iritziak eta ekarpenak kontuan hartuko dira

Erandioko Udalaren Berdintasun Sailak “Emakumeentzako Hiri Debekatuaren Mapa” sortuko du, eta horretarako, herrian bizi diren emakumeen iritziak, ekarpenak eta egoera hobetzeko ideiak kontuan hartuko dira. Txosten honez Erandioko emakumeentzako eguneroko bizitzarako oztopo izan daitezkeen hainbat elementu, edota herriko hainbat bazter identifikatuko dira. Horien artean, argi gutxiko lekuak, eskaileak, espaloiak, Erandioko gune beltzak, hartuko dira kontuan. Beste garrantzizko aspektu bat segurtasuna izango da; izan ere, herri eta hirietan emakumeen erasorako bazter asko topa daitezke.

Arrazoi hauengatik guztiengatik Mapa honen sorkuntza beharrezkoa dela, eta “prozesu irekia eta partehartzailea” izan behar dela uste dute Udaleko Berdintasun Sailatik. Horregatik ideiak aportatzeko gonbita egin gura dute emakumeen artean, honen inguruan dauden arazo guztiak saihesteko edo ezabatzeko helburuagaz.

Interesatuta dauden emakumeek proiektu honen arduradunakaz harremanetan ipin daitezke; Cristina Cordeiro Lopez (691 576 077); Amaia Herrero Oiarzabal (691 576 069) eta Izaskun Garcia Egaña (94 417 56 16) edo berdintasuna@erandioko-udala.net helbide elektronikora idatzita. ○

UTE IZANGO DA HERRIKO ZABOR ETA GARBIKETA ARDURADUNA

Erandioko Udalak herriaren garbiketa eta hondakin solidoen batze zerbitzua Union Temporal de Empresas-i esleitzea onartu du, datozen urteetarako. UTEri eman diote, baldintza onenak betetzen dituelako; izan ere, eskaintza ekonomikoa eta ingurugiroaren neurketa egokia betetzen du.

“AHUNTZA EDO NOR DA SILVIA?” ANTZEZLANA ERANDION

Martinek, ospe handiko arkitektoak, itxuraz desiragarria den familia eta lana du, Silvia ezagutzen duen arte. Une horretatik aurrera dena aldatu eta zeharo maiteminduko da beragaz, ahuntz batez, alegia. Ane Gabarain, Ramon Agirre, Asier Oruesagasti eta Asier Hormaza dira “Ahuntza edo nor da Silvia?” antzezanaren interpreteak. Obra dramatiko hau Alzagako Azoka Zaharrean izango da apirilaren 29an, 20:00etan.

MARTXAN DA DAGOENKO KOMIKI LEHIAKETA

Lehiaketan parte hartu gura duenak orain eta apirilaren 30era arte dauka bere lana aurkezteko epea Erandioko Gazte Bulegoan. Parte-hartzaileak 15 eta 35 urte bitartekoak izan behar dira, bakarka nahiz taldeka. Kategoria bakoitzari dagokionez, 18x24 cm neurriko lau orrialde izango ditu, behar bezala errotulatu eta formatu bertikalean aurkeztu beharko da. Komiki-Banda bakoitzak barriz, 19x8 cm neurria izango du eta bi edo gehiagogaz osatuko da. Formatua horizontala izan beharko da. Sarietako dagokienez, aipatu beharra dago, euskarazko autorerik onenari emango zaion 250 euroko saria eta lehenengo postuan geratzen denari 1000 eurokoa.

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

Tf. 94 467 17 13

FAX 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Sakelakoa

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

UDALEKU IREKIETAN IZENA EMATEKO EPEA MAIATZETIK AURRERA

Datorren uztailean eta abuztuan udalekuetara joan gura duten lau eta hamabi urteko umeek maiatzaren 1etik 29ra izango dute izena emateko aukera. Programa Sopelan erroldatutako umei zuzenduta dago, eta guztira 305 haurrek parte hartu ahal izango du. Eskainitako plaza kopuruaren %5 ezintasun fisiko, psikologikoa edo zentrik ezintasuna duten gaztetxoentzat gordeko da, eta kasu hauetan ume bakoitzeko begirale bat egongo da.

GAZTEEK INGELES TOPAKETETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Hamalau urteko gazteek, dagoeneko, datorren uztailean izango diren ingeles topaketetan izena emateko epea zabalik daukate. Izen-ematea apirilaren 24an amaituko da, eta zozketaren eguna 27an izango da. Programaren edukierari dagokionez, hiru astetako ingeles ikastaroa Ingalaterran edo Irlandan izango da, bertako familia batean, eta bertan dagoen ikastetxeren batera joan beharko dute. Horrez gain, aseguruia, gazteen ardurapean egongo diren begiraleak eta hiru irteera gutxienez egingo dira.

SOPELAKO ARTISAUTZA AZOKA MAIATZAREN 2AN IZANGO DA

Urtero legez, datorren maiatzaren 2an Larrabasterrako Urgitxietan Plazak Sopelako Artisautza Azoka hartuko du. Bertan, dastaketarako txosna izango da, eta arratsaldeko 18:00etan txokolatada egongo da. Honez gain, egun guztian zehar animazio ekintzak egongo dira. Ordutegiari dagokionez, goizeko 11:00etatik 15:00etara eta arrastiko 16:00etatik 21:00etara egongo da zabalik.

Sopelako hondartza onena

Arrietara-Atxabiribil hondartzak Bizkaiko puntuazio onena jaso du urte honetako denboraldiako



Hondartzaren puntuazioa azken bost urteetako onena izan da

Sopelako Hondartzaren denboraldi barria hasteko hilabete bi baino ez direnean falta, Arrietara-Atxabiribilek Bizkaiko hondartza onenaren kalifikazioa jaso du, eta puntuazioa azken bost urteetako onena izan da.

Egin den analisisian, ura eta harearen garbitasun maila hartu dira kontuan, dutxak, sorosle, hondartzain eta aparkalekurako sarrerak batera.

Udala bere aldetik, hasi da dagoeneko hondartza honen kalitatea mantentzeko lanak egiten eta gainera, bainu-kanpainak irauten duen lau hilabeteetan

garraio zerbitzuetarako hobekuntzak ere egingo ditu.

Bestetik, Udalak Getxo eta Sopela arteko kostaldeko bidea eta hondartzara dauden oinezkoen sarbideak ere zaindu gura ditu. Honen harira, Parapenterako erabiltzen den zelaian ibilgailu astunen joan-etorria debekatu gura du Sopelako alkate Imanol Garaik. Izan ere, bertatik paseatzen duten oinezkoentzako oso arriskutsua da, istripu larriak gerta daitezke. Hau dela eta, alkateak eremuaren oinezkoen zaugarriaren izaera mantendu gura du. ○

Pedro Hoyuelos > zuzeneko musikaria

“Gure lanbidea beti egon denez krisian guretzat ez da barria izan”



Pedro Hoyuelos

Artista hauek izan dudana esperientzia sinestezina izan da. Dohai berezia duten pertsonak dira, eta nire lana beraiekaz konpartitu izana pribilegioa izan da. Beti izan da egin gura izan dudana egin eta egiten dudana da gainera, denek oso odo hartu naute.

—David Bisbal edo Sergio Dalmagaz behar egiteaz gain, telebista saiotarako edo publizitatean ibili zara?

—Zenbait gauza egin izan ditut, baina oso gutxi, egia esan. El coro de la carcel izan zen telebistarako egin nuen azken lana, eta publizitatean Café Fortalezarako spot baten musika egin dut. Hala ere, nahiz eta arlo honetan ez naizen asko aritu, bizipen interesgarria dela iruditzen zait, eta zuzeneko musikariaren lanetik kanpo lan egiteko aukera ona izan da.

—Sakrifikatua da zure lana?

—Sakrifikatua? Ez dut uste, Hori bai, lan honek ardura handia eskatzen du eta ikasten, bidaiatzen, lanean... ordu asko sartu behar izaten ditugu. Hala ere, ez dut uste horregatik sakrifikatua dela esan daitezenik, ez beste batzuk baino gehiago noski. Gainera gustatzen zaiguna egiteak asko laguntzen du, noski. Hori bai logure asko asko izaten dugu.

—Orain krisiaren arazoa pil pilean dagoela, zure lanbidean nabaritzen al duzu?

—Zeozar nabaritzen da, baina beno, gure lanbidea beti egon denez krisian guretzako

«Artista hauek dohai berezia dute; eurek izan egitea pribilegioa da»

ez da berria. Hala ere, bai. Neurri batean, ziur nago askok nabaritu dutela, garai batean musikarekin diru asko irabazten zutenak eta orain diru hori bukatzen zaiela ikusten duten horiek batez ere. Gainera, horietako askok ez daukate musikarekin zer ikusi handia, musika saltzen dituzten komertziantek baitira. Hemen lan biak nahasten. ○

LAIKAK Taberna

Bentatu 2
48600 Sopela
Tf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34


DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9/ 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

AURTENGO LIBURU AZOKAK MERKATU SOLIDARIOA DAKAR

Urtero legez, Berangoko Liburu Azoka ate joka dator. Apirilaren 20tik 25era izango diren ekitaldien artean, merkatu solidarioa izango da ikusgai. Honetan, bigarren eskuko liburuak erosteko aukera izango du bertara hurreraten den orok. Aurtengo programak gainera, euskal literaturan ezagunak diren hainbat izen ekarriko dituzte gure artera, Unai Elorriaga getxoxtarra (Estatu espainiarreko Narratibako Sari Nazionala 2002an) edo Antton Irusta bere "Athletic guria!" liburuaren aurkezpenagaz, besteak beste. Programatuta dauden ekintzetan umeentzako emanaldiak ere izango dira.

LEONOR MARTINEZ EUSKAL MERKATARITZA ORDEZKARIA INDIAN

Berangoztarrak merkataritzako 1. euskal ordezkaria ireki du Indian. Bizkaitarrak Euskal Herriko enpresak exotikoa den herrialde batean sartzeko erronka du orain, bera baita Indiako bulego komertzialeko arduraduna. Eusko Jaurlaritzako Agentzia Publiko hau joan den 2008ko azaroaz geroztik Asiako herrialde honetan dago. Hala ere, Martinezen esperientzia, Indian, duela hiru urte hasi zen, Kanpo Merkataritzako beka batez New Delhira, beharrera joan zenean. Orain Leonor Indiako beste herritar bat bezala sentitzen da, eta euskalduna izan arren, bere etxea Indian dagoela dio.

Azoka eta pastel txapelketa

Maiatzaren 2an Berangoko nekazal eta artisautza azoka ospatuko da, pastel txapelketagaz batera



Azoka eta Pastel Txapelketa Moreaga parkean izango dira

Gazta, pateia, txakolina... gure lurraldeko eta artisautzako produktu onenak batzen dituen nekazal eta artisautza azoka maiatzaren 2an ospatuko da, Euskal Pastelaren Euskal Herriko Txapelketagaz batera. Ekimen biak Berangoko Moreaga parkean izango dira. Aurtengoa, gainera, bigarren urtea du metro alboko gune honetan ospatzen dena, eta Simon Otxandategi Dantza Taldeko antolatzaileek diotenez, "leku aproposena" da, bai azokarako eta bai txapelketarako.

Guztira, 74 stand izango dira artisautza, txakolina, txokolatea, pateia, ezta,

gazta eta Euskal Herriko beste hainbat produktu tipikoak batzen dituzten hainbat saltoki desberdinetan.

Euskal Pastelaren Euskal Herriko Txapelketari dagokionez, aurtengoa bere XXI urteurrena da eta aurkezle profesional batek gidatuko du. Bestetik, Agustin Herran irrati esatari ospetsua, Jesus Llona Larrauri medikua eta emaztea edo Oca dendako Fernando Cuaresma dira besteak beste, epaimahaia osatuko duten adituak.

Bai nekazal azokak, eta bai pastel txapelketak Berangoko Udalaren eta BBKren laguntza jaso dute. o

Portal 71 > Ipuinetako pertsonaien tailerra

Bederatzi ipuin tradizional eta zortzi eskulan aukeratu dituzte



Portal 71 enpresako lagunak emanaldi batean

Apirilaren 23an tailer berezi batean parte hartzeko aukera egongo da Urdulizko Kultur Etxean. Portal 71 kultur ekoizpenean espezializatutako enpresa bilbotarrak, *Ipuinetako pertsonaien tailerra* eskainiko du. Orain sei urte sortu zuten Portal 71; azken urteotan, mitologia, munstro eta kultur aniztasunaren inguruko tailerrak antolatu dituzte, beste gauza askoren artean.

Lehenengo aldiz egingo dute ipuinetako pertsonaietan oinarritutako emanaldia. Bederatzi ipuin tradizional aukeratu dituzte eta bakoitzari eskulan bat egokitu diote: Txanogorritxoren eta Pinotxoren kareta, Hiru Txerrioxen postala, Peter Panen kapela, kanpanillaren makiltxo magikoa, Edurne Zuriren txotxongiloa... Kartulinak, koloretako paperak, artaziak eta margoak erabiliko dituzte hori guztia sortzeko: "Gure helburuak inakurketa bultzatzea, eskulanak lantzea eta denok ezagutzen ditugun ipuin tradizionalak umei hurrentzea dira". Behin

tailerra amaituta, ipuin kontalariaren txanda helduko da: "Bederatzi ipuinen pasarteak nabastuz, ordu erdiko istorioa kontatuko du. Umeek kontaktetan parte hartuko dute, pertsonaiak antzetzuz eta tailerretan sortutako materialak erabiliz". Guztia koordinatzeko, lau begirale euskaldun egongo dira; tailerra elebiduna izango da.

«Umeek ipuinen kontaktetan parte hartuko dute, materiala erabiliz»

Gehienez, 150 umeek parte hartu ahal izango dute tailerrean; ez dago adin mugarik: "Sei urtetik gorakoentzat pentsatuta dago. Hala ere, ez dugu mugarik jarriko. Askotan, ume txikiak gurusoakaz hurrentzen dira eta eurekaz batera egiten dute lan. Hori oso aberasgarria izan daitekeela uste dugu eta horregatik ez dugu ostoporik jarriko". Izena emateko, Urdulizko Kultur Etxera deitu edo hurbildu behar da. o



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



JON DEUNAREN JAIK ANTOLATZEN LAGUNTZEKO DEIA

Barrikako Udalak, Jon Deunaren jaiak antolatzen laguntzeko deia zabaldu die herriko elkarte eta banakoei. Apirilaren 2an hasi ziren bilerakaz. Erabakiak lehenengo egunetik hartuko direla aurreratu dute, horregatik, bileretara hurbildu ezin dutenei, baina lagundu gura dutenei, udaletxera dei dezatela eskatu diete.

LABURMETRAIA TXAPELKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA

Apirilaren 30a arte, Urdulizko Basartena Tabernak Kultur Etxearen laguntzagaz antolatu duen II. Laburmetraia Txapelketan parte hartzeko aukera egongo da. Aurkeztutako lanak maiatzeko egunetan ikusi ahal izango dira tabernan bertan. Epaimahaia aukeratzeko dituen 12 lan finalistak, ekainaren 26an eta 27an proiektatuko dituzte Kultur Etxean.

Informazio gehiago: www.basartena.com

GAZTE AKTIBO PROGRAMA APIRILEAN

Gorlizko Udalak antolatzen duen Gazte aktiboa programako maiatzeko ekintzetan izena emateko aukera egongo da apirilaren 30 arte. 14 eta 30 urte bitarteko gazteek, ekintza bietan parte hartzeko aukera izango dute: Urdulizko Santa Marinaran egingo den eskalada ikastaroa (hilaren 16an) eta kanoa zeharkaldian (hilaren 30ean).

PLENTZIA

Gazte gunea martxan ipiniko dute apirilaren 30ean



Goienkale kaleko 25. zenbakian egongo da gazteentzako gunea

Apirilaren 30etik aurrera gazteentzako gune barria ipiniko du martxan Plentziako Udalak. Gazteplana abian jarri zutenetik, herriko gazteen iritzia eta iradokizunak bazter aritu dira. 12 eta 30 urte bitarteko neska-mutilentzako aisialdi eskaintzan dagoen gabeziari erantzun gura izan diote lokal barriagaz.

Billabasoenako (Goienkale 25) Udal Liburutegiaren beheko solairuan egongo da gazteentzako gunea. Topalekua eta Gazte Informazio Puntua martxan ipiniko dituzte

bertan. Informazio puntuak, 30 urtetik beherakoentzako zerbitzua eskainiko du; etxebizitza eta lan eskaintzen inguruko informazioa emango dute, besteak beste. Topalekuan aldiz, 13 eta 18 urte bitartekoentzako ekintzak antolatuko dituzte asteburuetan. Hala ere, udaletik, erabil-tzaileek egitarauaren egituraketan parte hartzea gura dute. Eserlekuak, telebista eta mahai jolasak izango dituzte eskura. Gazteek lokalaren apainketan parte hartu ahal izango dute. ○

April. 17 - Maitz. 8

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

LEIOA

► **Bosteko 09 (Dora Salazar, Begoña Zubero eta Jorge Garcia).** KULTU Leioan. Apirilaren 21etik maiatzaren 10era.

GETXO

► **Gizatiar taldeko Azokatxo.** Erromoko erakustaretoan. Apirilaren 24ra arte.

BERANGO

► **Tierra de Hombres. (Argazkien erakusketa)** Berangoeta Kultur Etxean. Apirilaren 27tik maiatzaren 11ra.

MUSIKA

GETXO ► **Pio Lindegaarden omeneko kontzertua James Carter Quintet-en eskutik.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilak 25, zapatua. 20:00etan. Sarrera: 12 euro.

► **Deustotarrak. (Kontzertua eta hitzaldia).** Areetako Musika Eskolan. Apirilak 24, barikua. 20:00etan.

ERANDIO ► **Bilboko Orkestra Sinfonikoa. Klarinete, biola eta piano hirukotea.** Josu Murueta Kultur Etxean. Apirilak 25, zapatua. 19:30ean. Sarrera: euro 1.

ZINEMA

LEIOA

► **Bonkers.** Apirilak 18 eta 19, zapatua eta domeka. 17:30ean. 3 euro.
► **El curioso caso de Benjamin Button.** Kultur Etxean. Apirilak 18, 19, 20, zapatua, domeka eta astelehena. 20:00etan. Sarrera: 3-4 euro.



► Tradizioa

Kanpomartxo 09

Garizuma aurreko domekan egiten den tradiziozko ospakizun honek oraindino bizirik dihardu Erandion, baita Bizkaiko beste hainbat herritan ere. Horregatik, Erandioko Berbotsek apirilaren 26rako emanaldi ugari prestatu ditu: Goizeko 12:00etan jaiari emango zaio hasiera Goizalde, Trabudu eta Uztagi dantza taldeen agerraldiagaz. Ordu bete beranduago, bertsolariek hartuko diete txanda dantzari, eta 14:30ean bazkari herrikoa izango da. Arrastian barriz, 17:00etan Kepa eta Robertoren laguntzagaz herri kantak entzun ahal izango ditugu, eta 17:30ean, txikienek Potxin eta Patxin antzerkiagaz dibertitu ahal izango dira. Amaitzeko, 18:00etan, erromeria Luhartz taldeagaz.

• **Non:** Kukularran (Erandio) • **Noiz:** Apirilaren 26an

GETXO

► **XXVI. Haur Zinema Jardunaldiak: Asterix en los juegos olímpicos.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilak 18, zapatua. 12:00etan.

BARRIKA

► **Liburuaren eguna: Apika taldearen pailazo emanaldia.** Apirilak 25, zapatua. 12:00etan.

ERANDIO

► **Ahuntza edo nor da Silvia? Txalo produkzioaren eskutik.** Altzagako Azoka zaharrean. Apirilak 29, eguaztena. 20:00etan.
► **Las señoritas de Aviñón.** Josu Murueta Kultur Etxean. Apirilak 18, zapatua. 19:30ean. Sarrera: euro 1.

ANTZERKIA

LEIOA

► **Animales artificiales.** Apirilak 24, barikua. 12:30ean. Sarrera: 12 euro.

GETXO

► **Kanpanila eta Peter Panen itzala, Txalo produkzioaren eskutik.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilak 26, zapatua. 12:30ean. Sarrera: 3.50 euro.

BERANGO

► **"Monstruak Akatu".** Berangoko Haur Liburutegian. Apirilak 2, eguaztena.

BESTEAK

LEIOA

► **Berto saioa (Andoni Egaña, Fredi paia, Jon Maia eta Uxue Alberdi).** Apirilak 25, zapatua. 20:00etan. Sarrera: 5 euro.

GETXO

► **Liburu Azoka eta Getxoko antzinako argazkien erakusketa.** Algortako Geltokia plazan. Apirilaren 24tik 26ra arte. 11:00-14:00etan eta 17:00-21:00etan.

► **Nazioarteko Dantza Eguna.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilak 26, domeka. 11:30ean.

► **Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribe. (Internet Kafe proiektuaren aurkezpena)** Algortako Geltoki Plazan. Apirilak 23, eguena. 20:00etan.

BERANGO

► **Liburu Azoka. (Bigarren eskuo liburuak).** Apirilak 25, zapatua. 10:00etatik 20:30era.

SOPELA

► **Artisautza Azoka.** Larrabasterrako Urgitxietan plazan. Maiatzak 2, zapatua. 11:00- 15:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tf. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Modernoa ugaldu...

“Moderno a ugaldu eta baserria galdu”. Esaera aproposa gure eskualdeko landa guneak bizi duen egoera deskribatzeko. Gero eta ugariagoak dira forma ulertezinako etxeak Uribe Kostan. Gustuko dituztenek, diseinuaren originaltasuna eta funtzionaltasuna goraipatzen dute. Besteek aldiz, barrakoi militarren antza hartzen diete eta betiko formen alde egiten dute. Batzuen gustukoa, besteen disgustukoa.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Poesia hutsa

Getxoko Kirol portua

Badoa gizona aurrera, pausoz-pauso, urratsez urrats, eguraldi ederra lagun, txori beltz guztiak burutik aldendu guran. Aste barruko egun eguzkitsuak aproposak izaten dira pasioan joan eta ideiak ordenatzeko. Bideak hutsik egon ohi dira, baita jai egunetan jendez gainezka ikusten ditugunak ere. Zorionekoak egun horiek kalean eta behar barik pasatzeko aukera dutenek! Krisiak poltsiko askori kalte egiten badie ere, horrelako egunak eguzkitan eta lasai bizitzeko aukera eman die beste askori.

[berbetan]

Jaiotzez zeberioarra, Xabier Aierdi duela sei urte Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokiaren zuzendari izendatu zuten; bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko atzerriko immigrazioaren ezagutza sistematikoa soziologiaren ikuspegitik aztertzen da, gai honetaz, hain zuzen ere, berba egiteko lotu gara. Aierdik zuzendari lanak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle lanagaz uztartzen ditu. 1980an zientzia politikoetan eta soziologian lizentziatu zen eta lau urte beranduago kazetaritza ikasketak ere amaitu zituen. Orain EHUKo soziologia saileko zuzendari ere bada bizkaitarra.

Xabier Aierdi

“Zibilizazio aldaketaren aurrean gaude”

Testua: **Ainhoa Lores** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zertan datza Ikuspegin egiten duzuen lana?

—Immigrazioari buruzko txostenak egiten ditugu. Hau da, immigranteei buruzko ikerketa soziologikoak, euskal gizartearen jarrerari buruzkoak eta batez ere, ikerkuntza, neurri batean, gobernuak edo udalek zer egin behar duten esan. Gure eginkizuna datuen inguruan lan egitean datza.

—Nola ikusten duzu immigrazioa Euskal Herrian?

—Nahiko patxadatsu eta lasai, egia esan. Praktikan, astiro-astiro eta konturatu barik pasatuko den arrazonamendua dela esango nuke. Bertako biztanleria apurka egokitzen joan da arazo handirik barik. Hala ere, immigraziaren inguruan beti egoten da alarmismo puntu bat, baina esan bezala, egunerokotasunak egoera lasaitzera eroaten du.

Nire ustez, egon badago immigrazioaren kontrako diskurtsoa duen jendea, baina era berean, etorkin bat pertsonalki ezagutzea gerta daiteke, eta pentsatzen duguna

guztiz aldatzea. Guk somatu dugu gauza bat dela, alde batetik, immigrazioaz zentzu orokorrean berba egitea eta beste bat pertsona zehatzei buruz aritzea. Normalean, jendea norbanakoari buruz berba egin behar duenean askoz arduratsuagoa izaten da, eta hobeto onartzen du immigrazioa, fenomeno orokor modura baino.

—Beste hiritar arrunt bat bezala ikusten ditugu?

—Ez, horrek denbora behar du eta beraz, epe luzera gertatzen den prozesua da. Gainera, aipatu bezala, honetan ere lasaitasun handia izan behar dugu eta ezin dugu


Azken finean, legeak berak, bertoko herritarrak ez direla esaten du eta legeak, askotan, gizarteak ipintzen ez dituen mugak ezartzen ditu. Horregatik, prozesuak luzera joko duela eta ez dela batere erraza izango pentsatu behar dugu. Prozesu hau gatazkan oinarrituta izango da eta etorkizunean ere ziurrenik ere horrela izango da. Ezin dugu esan, euskal gizartearen borondate onean oinarrituta dagoen prozesua dela.

—Gure lurraldean behin integratuta dagoen immigrantea etorkintzat jotzen da bizi guztirako?

“Immigrazioaren fenomeno natural antzekoa eta aldaezina dela uste badugu, oker gabiltza”

kontu erraza izango dela pentsatu. Alde batetik, maila sozialean zer egin genezaken eta bestetik, legalki oztopoak daudela eta muga hauek badaude, nahitaez maila sozialean, jendea ondo tratatu behar dela, pentsatu behar dugu.

—Neurri batean bai. Dena den, pentsatu behar dugu ez duela zertan betiko izan. Egoera bakoitzaren arabera gauzak alda daitezke; ikusi beharra egongo da etorkin batzuk hobera egingo duten ala ez, legalizatuko diren, bertan biziko diren eta



hemengo norbaitegaz ezkonduko diren... Bideak ugari izan daitezke eta fenomeno hau natural antzekoa eta aldaezina dela pentsatzen badugu, oker gabilta. Testuinguruak eta norberaren egoerak aldatu egiten dira eta aipatu bezala, batzuk hobera egiten duten bitartean, beste batzuk txarrera egingo dute. Beraz, denetatik topatuko dugula pentsatu behar dugu. Gainera, lege aldaketak ere gertatuko dira. Atzo legez kanpo zegoena, denboragaz egoera erregulartzat eta hobera egingo du. Berdina gertatuko da lanpostu bat aurkitzen duen etorkinagaz. Orokorrean konstante bat dela esan genezake. Azken batean, bertako herritartasunik ez duena askoz egoera txarragoan egongo da. Gainera, hemen, baldintzapenak daudela uste dut, batzuk beraien bizitza hobetzea lortuko dute, eta orokorrean hobera egingo dute. %80 erregularizatuta dago eta kopuru horretatik ia %30 ere gizarte segurantzian sartuta dagoela pentsatu behar dugu. Orduan honek ere adierazten du beraien egoera normalizatuz doala. Hala ere, oraindino prozesuaren hasieran baino ez gaude eta luzera joko du.

Bestetik, pentsatu behar dugu, gure gizarteak immigrante asko beharko dituela, etorkinak, neurri batean, gure beharrak edo premiak asetzera ere badatozelako. Askotan pentsatzen da immigrazioa kasualitatez datorrela eta kasualitate oso gutxi dauka —Krisiak enpleguan izan dezakeen eragina eta immigrazioa. Etorkinak beraien herrietara alde egiten ari dira?

—Ez. Beraien herrialdeetara bueltatzen badira zer topatuko dute? Buelako programa porrot egiten ari da, baina hori bazekiten; hala ere, Espainiako gobernuak propaganda egin behar zuen.

Beraien lurraldeetan itxaropenik edukiko balute edo hemen eduki dezaketean egoera txarra han konpon dezaketela gertatuko balitz, orduan, bueltatzearena posible izango litzateke. Baina argi izan behar da, hona etorri badira, euren herrialdeetako egoera ez zelako batere erraza izan dela.

Beraz, erretornoa ez dut posible ikusten. Posible izango litzateke soilik, benetan jendeak gauzak argi izango balitu, eta zelanbait esateko, hemen arrakasta izan duenean eta bueltatzeko aukera daukanean, buelta lasaia izan dezakenean. Gainera, hemen jaio edo hezi badituzte seme-alabak, hemen gustura badaude... Zertarako bueltatu? Azken bate-

“Erretornoa ez dut posible ikusten, bakarrik izango litzateke posible jendeak gauzak argi izango balitu”

an, gurasoak seme-alabak diren leku berekoak dira. Hau bertako gurasoakaz eta leku guztietakoakaz gertatzen den fenomeno da. Zuk nerabe bati planteatu herrixka txiki batera bizitzen joateko, ziur nago ez duela gura izango, nerabe diren momentutik bere bizitza propioa izaten dutelako.

—Behin azaldu zenuen gure bizi kalitate maila jaitsi beharko genukela, eta ez etorkinen herrialdeetan igo. Uste duzu gure gizartearen posible izango litzatekeela?

—Nik gero eta argiago daukat zibilizazio aldaketa baten aurrean gaudela. Gure bizi maila aldatu da; eta hau mantendu gura badugu, argi izan beharko dugu poliziak beharko ditugula kanpotik datozenak kontrolatzeko. Hau da, aukera bi ditugu: alde batetik, gurea jaistea jende guztiak bizi maila duina izan dezan, edo bestela argi izan gaizto portatu beharko garela eta

“Aristokrazian bizi gara eta beraz, bizi maila jaitsiko litzateke bakarrik, beste erremediorik egon ezean”

denari ezetz esango diogula. Estatu batuarak bezala, ipin diezagutela polizia gehiago eta horrela, kendu diezazkigutela gure lurraldera sartu gura dituzten “kalamidade” hauek guztiak.

Azken finean aristokrazia batean bizi gara eta sistema honek bere bizi maila jaitsiko du bakarrik, beste erremediorik ez

daukanean, hau da, bere egoera mantentzeko gaitasun militarrik ez daukanean. Eta hau izango da, hain zuzen ere, ezkerrean kontzientziarioa etorkizunean egoera eraberritu gura badugu.

—“Hona etortzen dira guri lana kentzera”, askotan entzun den esaldia da. Jendeak uste du, zentzu horretan, banatzeko

dagoen tartan zati txikiago bat eskuratu-ko duela, baina benetan horrela da?

—Ez. Gizarte hartzaileetan, etorkinak hona datozela eta gure tarta zatia berdina izanda, mahai inguruan jatun gehiago dagoela pentsatzen da. Horregatik, erakutsi behar duguna da, lehenengo eta behin, guk baditugula 130.000 immigrante eta Estatu mailan bost milioi pertsona daudela; bost milioi horiek, seguruenik bost milioi esne litro kontsumituko dituztela, eta beste 130.000 etorkinek ere kontsumituko dutela, ura gastatzen dutela, bidaiak egiten dituztela, autobusa hartzen dutela... Beraz, honek esan gura du kontsumitzaile gehiago dagoela eta merkatua murriztu baino, merkatua zabaltzea eragiten du.

Beste modu batera esanda, kontsumoa, azken batean, dagoen pertsonen arabera-koa izaten da; beraz, zenbat eta jende

gehiago egon, tarta handiagoa izango da; orduan, tarta handiago horretatik, bakoitzak dagokion zatia hartuko du, baina ez da ahaztu behar, zati handiagoa gure eskuetan geratuko dela.

Hau da, jendeak guk egin dugun lana kanpotik datozenek kenduko digitela pentsatzen du eta lanaren ordaina etorki-

nek daroela, baina hori ez da horrela, nahiz eta oso zabaldua dagoen kontua izan. Hemen jende mordoa dago lanean eta jende horrek azken finean, gure arazokak konpondu egiten ditu. Egia da gizarte-ko sektore bati arazoak planteatzen dizkiola. Gure gizartearen ekonomikoki oso indartsua den sektore bat ere badugu eta honek gainera, badauka, nolabait esateko, estatus murrizta; ez dauka ikasketarik, ez ditu lanposturik onenak okupatzen eta beraz, logikoa da jende horrek immigrazioari beldurra izatea, jakin badakielako etorkinek beraiek egiten duten lana ordezka dezaketela. Gainontzeko gizarteari immigrazioak arazo gutxi planteatzen dizkigu, are gehiago, guri arazoak konpondu egiten dizkigu. —Uste duzu etorkinek ere gure eskubide berak izan beharko lituzketela bozkatzera joateko orduan?

—Bai, baina ezin dituzte izan, legeak ez duelako onartzen. Azken finean, subiranotasuna estatuaren esku dago. Baina nik uste dut, herrialde batean zergak ordaintzen dituenak bozkatzeko eskubidea izan beharko lukeela; beraz, asmatu beharko genituzke erresidentzi forma barriak, etorkinek gure eskubide berak izan ditzaten. Hala

“Herrialde batean, zergak ordaintzen dituenak bozkatzeko eskubidea izan beharko luke”

ere, oso zaila ikusten dut. Bakoitzak bere interesen arabera funtzionatzen duelako. —Eta honen harira, uste duzu beraien bozkek eragina izan dezakeela Euskal Herriko mapa sozio-politikoan? —Bai, baina bozkatu ahal izango balute,

momentuz ez. Beste kontu bat da edukiko balute, niri primeran irudituko litzaidake serioski hartuko genituzkelako. —Etorkinak benetan daki hemen topatuko duena? —Zer topatuko duen bai, baina zenbat sufrituko duen ez. Hau da, pentsatu behar da hona datorren edonor beste batek deitu

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digitu).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tf. 94 491 13 37



Ongi etorri Korrikara

Ondo begitu egizu, agian bilatzen duzun horren argazkia aurkituko duzu eta. Lehengusina, aita, ikastolako koadrila, herriko mutil katxarroa, euskaltegian zugaz ibili zen neskatoa, okindegiko emakumea, iloba... denek egin zuten elkarregaz korrika. Baina, inor ez zen irabazle izan, inork ez zuen domina lortu. Euskara izan zen podiumeko goiko eskailerara igo zen bakarra; euskara, hainbeste maite, baina hain gutxi zaintzen dugun hizkuntza zahar hori. Ongi etorri Uribe Kostara, euskaraz bizi gura dugunon eskualdera.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**







I

Iñaki Bítxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

HARTU TXANDA

Alangobari 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

[zinema]

Giza Eskubideen zinemaldia

Hilaren **23tik 30era Donostian** Moore, Spurlock, Caston eta abarren lanak ikusgai



Sicko (Michael Moore, 2007) filmaren kartela

Donostiako Giza Eskubideen VII. Zinemaldia hilaren 23tik 30era bitartean egingo da aurten, orain dela sei urteko helburuari eutsiz, "bidegabekeriaren aurrean gure begiak zabalarazteko eta sufritzen dutenak gure elkartasuna sendotzeko". Asmo horregaz ekimenaren barruan fikziozko film luzeak, dokumentalak eta film laburrak eskaintzen dituzte, eta horrez gainera, hitzaldiak, solasaldiak, erakusketak eta sentsibilizazioa helburu duten zenbait ekitaldi antolatzen dituzte.

Hala, mundu osoko eskubideen urraketagaz loturik dauden arazoak ardatz har-

tuta, aurtengo sail ofiziala osatzen duten filmak hurrengoak izango dira: AEBko osasun sistema salatzen duen *Sicko* (Michael Moore, 2007), *Where in the world is Osama Bin Laden?* (Morgan Spurlock, 2008), aurreko Berlingo Zinemaldian CICAIE sariaren irabazle eta gai homosexualeko *Ander* euskal ekoizpena (Roberto Caston, 2008), iaz Donostiako Zinemaldiko Pelikula Onenaren Urrezko Masko-

«*Sicko, Ander, La caja de Pandora, Where in the world is Osama Bin Laden?, La forteresse e.a.*»

rra jaso zuen eta belaunaldien arteko hausturan oinarritzen den *La caja de Pandora* film turkiarra (Yesim Ustaoglu, 2008), AEBko Academiaren Oskar Sarietarako izendatutako, hainbat jaialditan saritutako eta Katrina urakanaren ondorioak ardatz harturik AEBren egoera jorragai duen *Trouble the water* dokumentala (Tia Lessin eta Carl Deal, 2008) eta asilo eskaeraren erantzunari itxoi ten dauden etorkinen harrera zentro bateko egunerokotasuna islatzen duen *La forteresse* pelikula suitzarra (Fernand Melgar, 2008). Sail nagusikoez gainera, esan legez, beste hainbat film labur ere egongo da ikusgai. ○

Informazio gehiago:

www.cineyderechoshumanos.com/2009/

Punk azkarra eta "urduria"

Algorta, Berango eta La Peñako **Nerviosah laukoteak** lehenengo maketa plazaratu du



Nerviosah taldea: Ander Goñi, Tiju, Marine eta Ajo

Orain dela ez asko argitaratu du Nerviosah taldeak izen bereko lehenengo lana, zazpi bat kantaz osatutako estrainako maketa. Algortar bik, berangoztar batek eta La Penako beste batek, hain zuzen, Ander Gonik (bateria), Tijuk (gitarra eta bigarren ahotsa), Mariñek (ahotsa) eta Ajok (baxua) osatzen duten laukotea orain dela bizpahiru urte sortu zen, "Tijuk eta biok pare bat abesti sortu genituen, gero Ajo sartu zen, eta hasieran beste abeslari bat ibili bazen bere, esan daiteke Mariñe batu zitzaigunean sortu zela taldea", azaldu du Goñik. Berangoko Grabasonic-en entseguak egiten dituen tal-

deak Basauriko Gaztetxeko Grabaciones Rotas estudioan, Peralesegaz batera, ekoitzi du gehienbat gaztelarazko letrak dituen (bizpahiru euskaraz) maketa. Horiez gainera, Goñik jakinarazi duenez, "bizpahiru bertsio ere jotzen ditugu, berbarako: *Paralisi Permanente taldearen "La Matanza de Texas" eta Sudio Sistema talde bilbotarrarena*". Taldearen "punk azkarragaz, hardcore doinu batzuek" gozatu gura duenak maiazaren 2an izango du aukera Txorimalo gaztetxean (Algorta). ○

Harremanetarako: nerviosah@gmail.com
657 77 81 90

Jazz kontzertua > Lindegaard gogoan

Getxoko Kultur Etxeak hastapenetatik udalerriko Jazzaldiaren bultzatzaile izan zen Pio Lindegaard musikariari gorazarre egingo dio, urtero legez. Jazz kontzertu bat antolatuz gauzatzen du Kultur Etxeak omenaldia eta aurtengo hitzordua hilaren 25ean ipini dute, arratsaldeko 08:00etan Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Aurten emanaldia eskaintzeko gonbidatu duten taldea James Carter estatubatuarra buru duen boskotea izan da eta kontzerturako sarrerei 12 euroko prezioa ipini diete (dagoeneko salgai daude ohiko bitartekoetan). Adituen esanetan, Carter jazz eszenako saxofoi jole entzutetsuenetakoa da eta haren doinuakaz eta bere taldeagaz gozatu gura duenak Getxon izango du aukera.

Kontzertua > Leonard Cohen

Poeta, nobelagile eta musikari kanadiarrak gira berria baieztatu du orain dela gutxi eta iberiar penintsulan eskainiko dituen kontzertuen artean dago Barakaldoko BECen irailaren 17an emango duena. Jakinarazi dutenez emanaldirako sarrerak hil honen amaieran ipiniko dira salgai (prezioa oraindik ez dute zehaztu). 40 hamarkada ohotza gainean eman ditu Leonard Cohenek, bide horretan eskaini ditu *Songs of Leonard Cohen* (1967), *Songs of Love and Hate* (1970) eta *I'm your man* (1990) disko arrakastatsuek, eta atsenaldi luzeska baten ostean iaz itzuli zen oholta gainera. Aipaturiko lanetako eta *Live in London* argitaratu berri duen diskoko kantakaz gozatu hartu gura duenak badaki noiz eta non daukan zita.

diskoak

Shah mat
Kudai
Orotots



Gipuzkoarrek beraien hirugarren lana kaleratu dute, xakea, literatura eta metal musika uztartuta. Kudai Katherine Neville idazlearen The Eight nobelaren oinarritu da eta horretaz gain, Machado, Gandhi, Nietzsche edota Einsteinen hitzak ekarri dituzte disko barri honetara iraultzaren mezua zabaltzeko asmoagaz.

Too Hurt To Cry
Bill Lyerly
Gaztelupeko Hotsak



Bill Lyerlyk 30 urteko musika ibilbidea bete duenean, azken diskoa kalean da jadanik Euskal Herrian eta atzerrian ere. Lan barriak blues eta roots doinuak jasotzen ditu, eta Steve Earleren kolaborazioa ere izan du kantu batean. "Too Hurt To cry" hamaika abestik osatuta dago eta AEBetan grabatu da.

Live In Najera
Gasteiz Big Band
Gaztelupeko Hotsak



10 hazbeteko biniloa dugu estraineko lan hau. Live In Najera ondoren etorriko den diskoaren aurrekari gisa har daiteke, eta zuzenekoaren bizitasuna harrapatu gura izan da, taldearen izpiritu bizizale eta dantzagarriaren adierazgarri. Gasteiztarrek Monty Normanen The Big Band eta Perez Pradoreen Mambo 5.5 piezen bertsio landuak dakartzate.



GAVRKO

GIZONENTZAKO MODA

Telletxe 5, ALGORTA

etorri
eta
ikus!!

MORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kaleagaz bat)
Tf. 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

GORLIZ IRRATIA
Urbe Kostako Irratia 107.8 FM
www.gorlizirratia.com

[liburuak]

Liburu Egunaren harira

Besteak beste, **Getxo, Berango eta Barrikan** zenbait ekimen prestatu dituzte

Nazioarteak hilaren 23an egiten die gorazarre berezia liburuei. Hala, literatura omentzeko eta sustatzeko asmoz, han-hemen ekitaldi andana antolatu dituzte.

Getxon, ohiko liburu azoka antolatu dute (hilak 23-26; Algortako Geltokia plaza). "Itsasoan barrena" ibiliko dira bertaraten direnak (hori dalako aurtengo gaia) eta Kirmen Uriberen eta Mikel Urdangarinen literatur-musika emanaldiaz gainera (hilak 23; 20:30), Esther Zorrozuza, J. C. Martinez, Mikel Martinez eta Abraham Amezaga liburuak sinatzera hurreratu dute (hilak 25; goizean). Ostera, Amezagak *Elias Amezaga: Vida y obra* lana aurkeztuko du (hilak 22; San Nikolas) eta Beatriz Cela-

«liburu trukeen merkatua, berbaldiak, bookcrossing, azoka, kontzertu poetikoa...»

yak *La historia de Algorta a traves del Casino Algorteano* (ikus. 14 orri.). Hilaren 26an (13:00) *Euskal Herriko Itsaso* lana eskainiko du Antzezkitzuna Ginol Taldeak.

Berangon ere ekimenak prest dituzte (Berangoetan), adib.: idazlan lehiaketa (epe-muga hilak 20); Liburu erabiliaren trukea eta salmenta solidarioaren lehenengo merkatua (hilak 25; liburuak uztean - hilak 17 epe-muga- txartelak emango dira,



Kirmen Uribe emanaldia emango du Urdangarinegaz

liburuengatik trukagarriak izango direnak); umeei begirako ipuin kontaketa (hilak 20); "Sahara" (hilak 21) eta Unai Elorriagaren berbaldiak (hilak 22) e.a.

Sopelan ere hainbat ekitaldi prestatu dituzte, hala nola: Ibilbide interkulturala (hilak 25), Euskal disko-liburuak partekatze azoka (hilak 26; gauzak uzteko epea hilak 20-24) eta partekatzen ez den materiala Uribe Kostan zehar sakabanatuko dute *bookcrossing* ekimenari jarraituz.

Amaitzeko, Barrikan ere ospatuko dute eguna, Apika taldearen Monda Lironda lanagaz (hilak 25, 12:00; Liburutegia). ○

**Informazio gehiago: www.getxo.net
www.berango.net www.sopelana.net**

liburuak



Rita tenislari
Mikel Valverde
Elkar

Mikel Valverde idazlearen *Rita tenislari* eta *Rita Poloan* haurrentzako liburuak euskaratu ditu Martin Elexpuruk. «Adiskidetasunaren garrantzia ezagutarazteko» xedea dute. Ritak Ipar Polora egindako bidaiaren eta tenislari izateko ametsaren berri izango dute haurrek.



Hasta la coronilla
Iñaki Errazkin
Txalaparta

Hilda dagoen monarkiaren eta haren buru agerikoaren kazetaritza-autopsia bat da. Irakurleak sakon ezagutuko du monarka, zehaztasun eta umorez hari dagokion ingurua deskubrituz: bere hildakoak, arrebak, emaztea, ondorengoak, amoranteak, negoziokoak...

[kirola]

Euskal Herriko txapeldunak

Leioa Waterpoloko andrazkoak mailaz igotzeko erronkari eusteko prest



Txapeldunen taldea: Naiara Gutierrez, Estibaliz Amesti, Aida Bartolome, Maria Barroeta, Ane Basauri, Ziortza Canibe, Naiara Dobaran, Estibaliz Etxebarria, Silvia de Meij, Vanesa Freire, Irati Gonzalez, Leire Gutierrez, Marta Martinez, Ainara Olabarria, Aitziber Ortega, Aiala Ruiz, Andere Vidal, Jone Xemein eta Emi Barrio

Aurten Euskal Herriko Liga irabazi dute barriro, orain dela urte bi lez, bejondeizuela!

"Aurten gure maila hobetu dugu, errazago irabazi dugu Liga; orain, maila nazionalera igotzen ahaleginduko gara", azaldu du Jon Lopez taldeko entrenatzaileak. Horretarako, maitatzen Aljecirasen jokatu den Espainiako txapelketan bi igoera postuetako bat lortu beharko dute. "Ez da erraza "beheko puntaraino" bidaia antolatzea... ez gara profesionalak, ea zelan moldatzen garen lan kontuakaz; baina, ahaleginduko gara, hori bai!", adierazi du Lopezek. Klubaren sortzaileetako da andrazkoen taldea, "ez da normalena, baina, kluba emakumezkoen taldeagaz eta gazteen taldeagaz sortu zen orain dela 10 urte; aitzindariak izan ziren neskak". Klubak waterpolo eskola ere badauka eta harrobiari begira zera dio: "waterpolo izanda, eta emakumezkoak, zailagoa da, baina urtero behetik datorren jokalarri barraren batek egiten du debuta; pozik gaude". Taldearen gainean, "zelanbait betenaren taldea da gurea, baina asko, 8-9 jokalarri, beheko eskolatik etorritakoa dira" jakinarazi du harro entrenatzaileak.

Leioztarrek txapeldunei egindako harreraz itaunduta Lopezek azaldu du: "gure aldetik, waterpoloaren munduan, asko balioetsi da, bai egin duguna, baita egin dezakeguna ere; maila nazionalera igotzea zerbait historikoa izango litzateke Euskal Herriko emakumezkoen waterpoloarentzat! Herrian, badakigu zein den gure lekua, baina uste dut jendeak gero eta gehiago balioesten duela egiten duguna;

«Maila nazionalera igotzea zerbait historikoa litzateke»

Leioan, ez itzelezkoa, baina badago zelanbaitetako waterpolonako giroa... Askartza bere hor dabil. Hain presentzia txikiko kirola izanda, badaukagu gure lekutxo. Kexak betikoak dira, oro har ugerlekua erabiltzeko ordutegi desegokia, baina itxaropentsu daude ugerleku barriaren egitasmoagaz, Lopezen ahotan: "ez dago gehiegi eskatzerik, nahiko baloratuta sentitzen gara; eskatzeko beti dago astia eta gogoia, baina momentuz ez da gure asmoa; gure lanagaz harro gaude eta horregaz jarraituko dugu". Hala bedi, zorte on! ○

Informazio gehiago: leioawaterpolo.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Eneko Barrutia > Mendebalde Elkarteko zuzendaria

“Euskalkiak berak aberasten du euskara batua, zer bestela?”



Eneko Barrutia

“Transmisioa eta erabilera” izenburupean datoz aurtengo Maiatzaren 8an eta 9an Bilbon ospatuko diren XII. Jardunaldiak. Horretarako, Eneko Barrutia, Mendebalde Elkarteko zuzendaria eta hitzaldi hauen antolatzailea denagaz, berba egin dugu. Barrutiak urte eta erdi daroa postuan. Aurretik, Alfonso Irigoien, Juan Luis Goikoetxea, Maribi Unamuno eta Esti Izagirre izan ziren elkarteko zuzendari.

—Azal egiguzu zein den Mendebalde Kultura Elkartean egiten duzuen lana?

—Gure zeregin nagusia eta ezagunena urtero jardunaldiak antolatzea da. Gai baten inguruan hizlariak ekarri, liburua argitaratu, kongresu modukoa egiten dugu. Foro bihurtzen da elkartea eta euskaltzaleen topagune, giro onean hau eta bestea eztabaidatzeko. Aldizkari elektroniko bat argitaratzen dugu, hainbat liburu argitaratu ditugu eta bestelako proiektuak ere izan ditugu erakunde desberdinakaz.

—Aipatzen duzue mendebaldeko euskarak, bizkaiera izenez ezagutzen dena,

batuari eskaini diezaiokeen ondarea ikertzen duzuela.

—Bizkaiko euskarak gauza ederrak dauzka ikertu gura dituenarentzat: azentua, intonazioa, berben ordena, joskera, hiztegi aberatsa... Euskalkiek aberasten dute batua, zerk bestela?

—Hamabi urte daroazue jardunaldiak antolatzen. Nabaritu duzue aldaketaren bat euskararen inguruan?

—Euskara landuago eta ikertuago daukagu, argitalpenak asko ugaritu dira. Hala ere, erabilera ez da horrenbeste gehitu.

—Aurten “Transmisioa eta erabilera”

izenburupean antolatu dituzue jardunaldiak, eta hauei hasiera emateko galdera bat: “Euskaldunak zenbat?”

—Horixe izango da Iñaki Martínez de Lunaren hitzaldia, galdera horri erantzunez. Eta kontua batzuetan ez da euskaldunak zenbat, euskaldunak asko badira, baina inguruko erdaldunak gehiago badira, euskararen erabilera sekula ez da izan behar litzatekeen bestekoa.

—Nork parte hartuko du jardunaldietan?

—Hizlari jakintsu eta famatuak dauzkagu.: Iziar Basterretxea, Kike Amonarriz, Fredi Paia... Ezingo nuke denak aipatu, asko dira

«Uribe Kostako euskara ederra dena, denok dakigu»

eta. Omenaldia Luis Baraiazarrari egingo diogu aurten.

—Nori zuzenduta daude jardunaldiak?

—Euskaltzale guztiei, ez da gutxi! Ez da unibertsitate mailako kontua, nahiz eta hizlari asko benetako adituak izan. Gizartean zabal aztertzeke eta berba egiteko gaiak dira, kutsu teknikoegi bakoak.

—Uribe Kostako euskarari buruzko aipamenik? Zelan ikusten duzu euskararen egoera gure eskualdean?

—Uribe Kostako euskara ederra dena, denok dakigu. Mendebaldeko euskararen sartaldean, ezaugarri polit asko dauzka, Bizkai-Bizkaikoak.

Egoera soziolinguistikoa, denean lez, konplikatu antza izango dela imajinatzen dut. Horixe aztertuko dugu aurtengo jardunaldietan “Transmisioa eta erabilera”, zelan transmititzen den euskara euskaldun zaharren kasuan, euskaldun barrian kasuan, zenbateko erabilpena egiten den. Ea hemengo eta hango barri entzunda, denok zer edo zer ikasten dugun. ○

Nik ikastaro berrian hartuko dut parte.*

*yo me apunto al nuevo curso.

AISA
Nuevo curso de acogida lingüística para nuevos y nuevas getxotarras

INFORMAZIOA
UDAL EUSKALITZEA, TEL.: 94 464 62 99 (BILBO) | LAGIKETA AĒK EUSKALITZEA, TEL.: 94 430 47 34 (ALGORTA) | J. A. AGUIRE EUSKALITZEA, TEL.: 94 460 66 71 (ALGORTA)

HADE

Getxo
UDALA - AYUNTAMIENTO

EUSKARA
BIZI

Iñaki Fiera > Arrigunaga

“Garagar usaina du Arrigunagako hondartzak ekainetik urrira”



“Egunez eguneko bidaia da gure niñietan, eguzkitako gainetik begira”

Garagar usaina du Arrigunagako hondartzak ekainetik urrira; reggae, country edo rockak hartzen dute arrastrietako giro epela; adiskidetsua da harearen gaineko tertulia, mahaiaren inguruko solasa, zerumugan lasaitzen den soa. Urrun aditzen ditugu olatu jostalarien arteko berbaro hurbila, haur eta nerabeen olgeta amaiezina, gazteen gorputzen mintzo ausart eta lotsabakoa; urrun aditzen ditugu azal kiskalien gaineko krema jario airakorra, txakur jabe gabetuen zaunka negarti eta galdua, sorosleen etengabeko

elebitasun freskatu gabea. Garagardo hotzen bitsean egiten dugu surfa, trebe, txandaka, uraren urdin betiere zikinduz kezkatu gabe. Krak egiten du patata frijituak, zurrut olibari ateratako urak, txintxin edalontzien arteko topa pizgarriak. Oinak behinola guretzat hartu genuen harean gorde-gordeka, trapezioetako artista sentitzen gara hondartzaren zoru desorekatuan, plastikozko aulki izerditu berrietan. Malgu egiten dugu laneko penen eta nekeen arteko soka tinkatua. Ekilibrista finak nola, hala ibiltzen gara

sarerik gabeko hitz-aspertu dardartietan, futboletik politikara, politikatik oporretarako planetara... ametsetara. Eguzkia dugu erloju eta egutegi: ekaineko aurreneko egunetan, Punta Galeaz sortalerantzko itsaso gorritu berrian amatatzen du bere sua; urrira gatzela, egunak laburtzearekin batera, sartaldeko Trianoko mendien magaletan bilatzen du gau gero eta luzeagoaren freskoa. Egunez eguneko bidaia da gure niñietan, eguzkitako gainetik begira. Halakoak dira uda beteko gure arratsaldeak Arrigunagako txiringitoan. ○

Toponimoa > Arrigunaga

Arrigunaga (Hondartza):

Hondartza honek izen bi dauzka Arrigunaga ezaguna eta hain hedaturik ez dagoen Areatxu. Arrigunaga izenaren osagaiak argiak dira: harri, gune eta -aga atzizkia. Beste kasu askotan bezala ezin dugu jakin baserriak izena hondartzatik hartu zuen, alderantzizko bidea izan ote zen edo biek hartu ote zuten bertako eremu baten izena. Ingurua ezagututa pentsatzekoa da Arrigunaga izenak Talaieta azpian dauden harri-bolak izenda zitzaizkela, baina hau guztia teoria hutsa da. Ikus ezazu Arrigunaga baserriaren sarrean esaten dena. Azken garaian lurpekoa dela eta kanpoko jendea hasi da hondartza honetara etortzen eta “la playa de Bidezabal” deitzen hasi, aipatutako geltokian jaisten dira eta. Barrutia: Algorta (Getxo)

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa

Croissanterie

Liluratzen gaituzten usain eta zaporeak



Rosi Pujana eta Ana Mari Mentxaka

Ez da ikusmena behar Getxoko Croissanterie non dagoen jakiteko. Barrutik ateratzen den usain gozoak, bat baino gehiago liluratu eta barruan sartzeraren animatu du. Ana Mari Mentxakak lagun bategaz zabaldu zuen 1988an: “*Garai hartan ilepandegia neukan. Hori utzi behar izan nuen eta denda zabaltzea enabaki nuen*”. Gaur egun, Mentxakak bakarrik zuzentzen du denda. Ez dauka atsedenerako astirik. Urteko egun guztietan goizez eta arratsalde zabaltzen dute, baita domeka eta jai egunetan ere.

Inoiz ez da jendea falta; batzuetan, ilara luzeak sortzen dira: “*Herrikoa ez den jende asko hurbiltzen da, Sestao, Barakaldo, Bilbo eta Leioakoa adibidez. Gebienak bezero finkoak dira; behin erosi eta, hortik aurrera,*

astero izaten ditugu hemen. Gazte asko ere etortzen dira, 16 eta 30 urte bitartekoak; bat etorri eta koadrila guztia erosten du”. Eskaintzen dituzten produktuetan eta horien kalitatean dago arrakastaren sekretua. Alde batetik, etxean egindakoa da dena; bestetik, beste lekuetan aurki ezin daitezkeen jakiak dituzte: “bonba” begetalak, txokolate eta espinaka triangeluak... “*Gazteen artean triangeluak dira gehien saltzan direnak; nagusiek gurago dituzte pastelak eta kruasanak*”. Aurreko guztiaz gain, enpresa edo talde handientzako gosariak prestatzen dituzte enkarguz. Zentzu guztiaz gozatzeko lekua da Croissanteria, bekatutako txokoa. Dietan bazaude, hobe duzu ez hurreratu. ○

Monte Jata 1, GETXO. T. 94 460 86 48

KONTXI
ZUZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

gOZOLABEA
galdaretxe
• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

ARTAZA ETXEA
jateetxea
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI -
GETXO

basalbobaserria@yahoo.com



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Aritluze z.g • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z.g (Sarrikobasogaz bat)
Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z.g
Algorta

*Tf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Ez sinetsi esaten dizuten guztia, bestela ederra egingo duzu. Hobeto informazioa egiaztatzen baduzu. Kontuz zure genio txarragaz, eta ez esan behar ez denik.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Egun aspergarria eta nekagarria izan da gaurkoa, baina oraindino lagunakaz geratzeko denbora daukazu, lasai-lasai kafetxoa hartzen joateko. Ez egizu aukera galdu eta anima zaitetz!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Ikasketak direla eta, lan handia egiten zabilta, beti liburu artean eta lagunakaz geratu ezinik. Ez etsi, ahalegin horrek emaitza onak ekarriko dizkizu ekainean, eta irailerako dena garbi.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Dagoeneko udako oporrak prestatzen? Ez da goizegi? Beno agian eskaintza bereziki eta merkeagoak aurkitzeko aukera ere izango duzu; beraz, animo!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Oporretatik bueltan eta barriro lanera joan behar, hau da hau nagia! Lasai, laster dator asteburua. Gainera, udan ederto gozatzeko, hilabete bi baino ez dira falta; beraz, ez kexatu eta gozatu.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Umore onez altxatu zara eta lanera joan behar. Beno, laster amaitu eta berehala deskantsatzeko aukera izango duzu sofa gainean, pelikula ona ikusten, eta gura duzun guztia jaten.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Azkenean gidatzeko baimena eskuratu duzu? Bazen garaia! Orain badakizu, gurason kotxea edo lagunena hartu, kilometroak egitera! Hori bai, kontuz ibili, 80tik pasatu barik!

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Aspalditik triste zabilta: Kalera irteteko gogo barik eta lagunen telefono deiak hartu barik? Buelta eman beharko diozu egoera horri bestela hondoratuko zara eta.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Beti zabilta telebistari begira etzanda, azkenean sofatik ere ezin izango duzu mugitu. Ziatika eta horrelakorik, ez ezta? Zoaz egun eguzkitsu eta zoragarria gozatzera, gutxi izaten dira eta.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Hotz handia dago egun hauetan, eta hobe duzu gordeta zeneukan txamarra hori hartzen baduzu. Dena den, ez kezkatu laster uda helduko da, eta barriro armairuan gorde ahal izango duzu.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Ez esan, etxe barria erosi guran zabilta eta banketxeak ez dizu eskatutako dirua eman gura; lasai hartu, denbora dago. Gainera, krisia dela eta etxeak gero eta merkeago topatuko dituzu.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Beti zabilta dieta egin behar duzun kontuagaz gora eta behera, baina azkenean ez duzu egiten. Ez da erraza jateko ohiturak aldatzea, baina apurka-apurka lortuko duzu.



KOSKA
irratia 108 fm

www.koskairratia.com

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Espainiera.
2. Poza.
3. Irristatuz garraiatzen den enborra.
4. Zoro.
5. Ahuntzaren ar.
6. Erdi Afrikako estatua.
7. Sodioaren ikurra.
8. Karga elektriko duen atomo.
9. Bokala.
10. Kontsonantea.
11. Metatua.
12. Oinarritzko edari.
13. Ekarrarazi.
14. Bokala.
15. Bibliako pertsonaia.
16. Herensuge.
17. Nitrogenoaren ikurra.
18. Idatzi mota.
19. Semearen arreba.
20. Gabarra txikiak.

Goitik behera

1. Perretxiko jangaria.
2. Erenta.
3. Berrogeita hamar.
4. Saski, otarre.
5. Erreka.
6. Grinak.
7. Abederako lehen letrak.
8. Juntagailua.
9. Ote saila.
10. Musika nota.
11. Segurua, okerbiderik gabekoa.
12. Betea.
13. Gasteiz ondoko herria.
14. Emakume izen katalana.
15. Animalia ur lehortarra.
16. Norbait.
17. Bokala.
18. (Zah.) Zakurra.
19. Bokal bikoitza.
20. Animalien bame organoak.

Soluzioak

K	V	L	V		V	B	V	L	V	
V	H	E	K	V	I	V	S		N	
I	O	G	V	H	D		T	U	R	
V		I	R	R	V	K	V	R	E	
R	U		V	U	T	V	L	P	I	
R		V		I	O	I	V	N		
E	H	E	V	Z	H	E	R	V	A	
K	O	R	E		V	H	O	L		
V	L	A	I	T	S	V	A	L		
V	A	N	I	A	N	I	A	G		



IÑAKI ARDANZAK UTZITAKO ARGAZKIA

asmatu eta irabazi > lagun birentzako bazkaria



Nor da?

- Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabazi barri du
- Estilo probokatzailea dauka
- Zigarroa eskuan ikusten dugu gehienetan

> Aurrekoaren erantzuna: Afrika Baeta.

> Irabazlea: **Edurne Lopez Urqujo (Berango)***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean lagun birentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Argia

astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



•Jolasak eta liburuak

www.argia.com

Bittor Egurrola

"GUECHO" TRAINERUA, 1970

Azken zenbakian 154.enean, Iñaki Ardanzari egindako elkarrizketa agertu zen "Herriz herri" sailean. Oraingoan, bera eta beragaz batera 1970eko gerraosteko lehenengo traineruan ibilitako arraunlarien argazkia jarri dizugu sail honetan. Garai hartan bazegoen traineru bat izateko gogoia, baina dirurik ez. Horregatik esan dezakegu orduko arraun elkarteko Jose Luis Real de Asua (GB) presidentek trebeki bete zuela bere lana; honek lortu zuen Getxoko Pedro de Zubiria alkateak (Francoren garaiko azken alkatea 1969-79) 2. eskuko traineru bat erostea Portugaleteri 40.000 pezetan eta Leioakoak, Ramon Txurrukak, arraunak (arraunlari batzuk leioztarrak ziren). "Guecho" izena ipini zioten. Urte horretako Bizkaiko txapelketan, 3. postuan sailkatu ziren; txapelduna Zierbena, orduko talderik indartsuenean. ○

Ezkerretik eskuinera:

Iñaki Ardanza (patroia), Miguel Perez, Victor Fernandez, Luis M^a Suarez, Jose Ramon Fernandez, Juan Luis Madariaga, Javier Fernandez, Jon Lazaro, Jaime Fernandez, Jose Ignacio Gutierrez Ramon Isasi, Juan Jose Galbarriatu, Angel M^a Astorki, Txomin Gezuraga (ordezkoa, ez dago argazkian), Marcos Bretos (entrenatzailea ere bazena).



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

ANE GABARAIN > Aktorea

“Felinoen mugitzeko modua gustuko dut, oso sentsuala da”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan

Jatorra eta serioa.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Tarzan, asko disfrutatzen zuelako.

Zer izan gura zenuen txikitik?

Eguraldiko emakumea, zerura begira denbora asko pasatzen nuelako.

Zerk ematen dizu beldurra.

Heriotzak, gaixotasunak, miseriak, pobrezia, minak...

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Boody Allenen edozeinetan; asko gustatzen zait bere umorea.

Hautzaroko oroitzapen bat?

Erregeek jostailuzko kapotadun kotxea ekarri zidaten eguna.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Tigrea, edo katua baino handiagoa den edozein felino. Mugitzeko duten modua gustuko dut, oso sentsuala da.

Ohitura txarren bat?

Asko ditut, baina horiek ez ditut aitortuko.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Yemeneko oporraldia berezia izan zen. Espazioan eta denboran egindako bidaia zela iruditu zitzaidan.

Gehien gorroto duzun topikoa?

Topiko gehienak gorroto ditut.

Zure ametsetako bat?

Aberatsa izan, guapa eta dirua eduki barra-barra nahi dudana egiteko.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Nere familia eta lagunak gabe.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Bizi naizen lekua, Donostia. Zurriolako hondartza asko maite dut. ◯


LABURREAN— Telebistan egindako pertsonaia komikoek egin zuten ezagun Euskal Herrian Ane Gabarain aktorea (Donostia, 1963). Nork ez ditu gogoratzen *Bi eta Bat* (1990-1993) edo *Jaun eta Jabe* (1995-1997) telesail arrakastatsuak. Horren ostean, hainbat laburmetraia, luzemetraia eta telesailetan parte hartu du Gabarainek, baita Euskal Herriko kanpo ere. 1998an Ramon Barearen *Pecata minuta* filman egindako paperagatik, Euskal Aktoreen Batasunak ematen duen aktore onenaren saria lortu zuen. Alex de la Iglesia zuzendariaren *La Comunidad* filman egindako lanagatik aldiz, IX. El Mundo Euskal Zinearen Sarietako Aktore Onenaren saria irabazi zuen. Apirilaren 29an, Erandioko Alzaga Azoka Zaharrean egongo da *Ahuntza edo nor da Silvia?* antzezlanagaz.

Ezagut ezazu zure alderik freskoena



*“Tardatzen... ezagutu nuen nire alderik freskoena...
bakterio-ala behar bezain gutxi... ezin izan nuen...
Biziak eta naturak... ezin izan nuen...
Eta orain, horrenbeste... ezin izan nuen...
Udal Merkatuan... ezin izan nuen...
Ri 100 naturalak... ezin izan nuen...”*

Eros ezazu zure **Udal Merkatua**



Getxoko leku izenak ezagutu, ikasi



Ibilbide Toponimikoak 2009

Zelan deitzen da toki hau? Zer esan nahi du horrek? Zergatik deitzen da hau horrela? Ezagutzen dituzu Getxoko toki izenak?

Udaberri honetan, 9 ibilbidetan, ezagutu Getxoko toponimia.

Martxoak 17	18:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aiboa	3,6 Km
Martxoak 27	18:00	Bolua-Neguri-Ereaga	3,4 Km
Apirilak 1	19:00	XX. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu Zaharrean hasita	1 Km
Apirilak 7	19:00	Bolua-Santa Koloma-Bolua-Aiboa	2 Km
Apirilak 21	19:00	Telletxe-Ereaga-Arrigunaga-Aixerrota-Bidezabal	3 Km
Apirilak 30	19:00	Bidezabal-San Inazio-Neguri	3 Km
Maiatzak 5	19:00	XX. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu Zaharrean hasita	1 Km
Maiatzak 13	19:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aiboa	3,6 Km
Maiatzak 21	19:00	Andra Mari-Sakuskune-Diliz-Andra Mari	5,9 Km
Maiatzak 29	19:00	Andra Mari-Diliz-Galea-Andra Mari	5,7 Km
Ekainak 1	19:00	Bizkaia Zubia-Zugatarte-Ereaga-Igeregbe	4,1 Km
Ekainak 9	19:00	Bolua-Neguri-Ereaga	3,4 Km
Ekainak 17	19:00	Telletxe-Ereaga-Arrigunaga-Aixerrota-Bidezabal	3 Km

Ibilbideak euskaraz izango dira



Eskatu informazioa Udal Turismo Bulegoan edo deitu 688 635 350. Izena eman behar da telefono honetan: 688 635 350

